


Iñaki Goikoetxea

Xabierko gazteluan jaio zen 1506an eta Txinan
nil 1552an. Besteak beste, Leireko monastegian,
Tafallan eta Parisko Sorbonan ikasi zuen.
Hantxe ezagutu zuen Loiolako Iñazio eta haren
eraginez Erromara joan eta jesuita izatea erabaki
zuen. Bere ametsa misiolari izatea izan zen
eta halaxe eman zituen bere bizitzako urterik
gehienak Asiako hegoaldean, Afrikan,
Mozambiquen, Indian, Japonian... eta azkenean,
hainbeste itxaron eta desiatutako Txinarako
bidaia egitera zihoala hil egin zen.

A. Iñaki Goikoetxeak idatzi duen liburu honetan
Frantzisko Xabierren bidaien berri zehatza
ematen zaigu; hasierako urteetatik
azkenengoetaraino.

ISBN 84-271-2263-2



9 788427 122635


FRANTZISKO XABIERKOA

92768

Frantzisko Xabierkoa



GERO
EUSKAL LIBURUAK



FRANTZISKO XABIERKOA

Iñaki Goikoetxea

FRANTZISKO XABIERKOA

Eskubide guztiak erreserbatuta daude.
Debekatuta dago, legearen arabera, liburu honen kopia egitea,
osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere
(fotokopiak eta informatika barne)
Copyright-aren jabeen idatzizko baimenik gabe.
Baita publikoki aleen distribuzioa egitea ere.

Bildumaren diseinua: Alvaro Sánchez

© Iñaki Goikoetxea
© 1999 Gero/Mensajero. Sancho de Azpeitia 2, bajo - 48014 Bilbao
E-mail: mensajero@fedecali.es
Web: <http://www.mensajero.com>

ISBN: 84-271-2263-2
Lege gordailua: BI.-2449-99
E.E.n inprimatua - Printed in E.C.

Inprimategia: Gestingraf, S.A.L. - C° de Ibarsusi, 3 - 48004 Bilbao

NAFARROA

Hamaseigarren mendearen hasieran Nafarroako erreinua hilzorian, azken arnasetan aurkitzen zen. Frantzia eta Gaztela bi etsai indartsuen erdian itota zegoen.

Bestalde, nafarrak eurak ere, beren artean bi bandotan zatiturik, haserre bizian borrokan bizi ziren: beaomondarrak Gaztelaren aldekoak, eta agramondarrak Frantzia zaleak.

Honela, Nafarroako erreinuak, kanpoko eta barruko etsaien erasopean makaldurik, odol husturik, ezin zezakeen luzaro zutik iraun.

1560. urtean, Xabierko Frantzisko jaio zenean, Katalina Andrea eta Joan Albert-eko ziren Nafarroako erregin-errege.

Katalina erregina emakume burutsu, zuhur eta bihotz-onekoa zen, eta Joan honen senarra gazte lerdena, goruputzez ongi tajutua, baita jakituna zen, armak baino liburuak gehiago maite zituen.

Nafarroaren ipar eta hego mugetako erregeak, Frantziako Luis eta Fernando Katolikoa, ez ziren bat ere fidagarriak. Bi agintari hauek aspaldidanik nafarroako erreinua bereganatzeko aitzakia bila zebiltzan.

Eta horretarako aukera egokia azaldu zitzaion:

Gaztela eta Frantziako erregeen artean guda sortu zen, eta Fernando erregeak Nafarroakoari bere armadarekin Frantzia aldera pasatzeko baimena eskatu zion. Eta ez baimena bakarrik, baita ere, fidantza bezala, Lizarra, Amaiur eta Donibane Garaziko gazteluak emateko exigitu zion.


Garai hartan Gipuzkoa Gaztelarekin elkarturik zegoen, eta Fernandoren gudarosteak Hondarribiatik zehar Frantziara joateko igarobide erosoak zuen. Baina...

Fernandok Nafarroako erregearen ezetza hartu zuenean, honek bere armada Nafarroako erreinua menperatzeko prestatu zuen.

Arabako lurraldean bildu ziren Fernandoren arma-gizonak:

12.000 oinezko, 2.500 zaldizko eta 20 kanoi.

1512. urteko uztailaren 21ean hasi zen gudari talde ikaragarri hau Nafarroarantz mugitzen.



Albako Dukea zuten buruzagi. Eta, hau lotsagarria!, Dukearen alboan, etsaien artean, Leringo Kondea, nafar beamondarra, ikus zitekeen.

Burundako haranetik aurrera, Altsazu, Uharte-Arakil, Irurtzun zehar, inolako borroka eta zailtasunik gabe, lau egunen buruan Dukearen gizonak Iruñeko ateetan zeuden, eta hiriaren jabe egin ziren.

Joan erregeak Iruñea utzi, eta bere emazte eta seme-alaba txikiak harturik, presaka Irunberrira ihes egin zuen, eta hain estu eta larri alde egin ere, Frantzisko printze txikia eguzkiaren beroaz akiturik bidean hil zen.

Joan erregea bere sendi eta lagun leialekin, Pirinio mendien ipar aldean, Ortez herrian bizitzen jarri zen.

Erregearen zaldun leialen artean Frantzisko Xabierrekoaren aita aurkitzen zen. Joan Jatsukok bere erregeari azkenera arte zintzo jarraitu zion. Hiru urte erbestean emanaz, familikoengandik urrun, etxe-minez eta penaz 1515. urtean hil zen.

Lau urte geroago, Fernando Katolikoa hil zenean, nafar leialak berriz ere beren lurraldearen askatasunaren alde armetan jaiki ziren, baina Erronkariko haitzetan garaituak izan ziren...

Orduan Zisneros Kardinalak, Fernandoren ondorengo erregeak, Nafarroako gaztelu guztiak, etsaien babesleku izan ez zitezten, lurrera botatzeko agindu zuen. Xabierko gaztelua ere, bere dorre, almena, harresi eta fosoarekin lurreraino jaitsia izan zen. Errukiz, bertan bizitzeko gela gutxi batzuk zutik utzi zituzten.

Frantzisko hamar urteko gaztea bere gazteluko hondakinen gainean aitarik gabe, bere bi anaia nondik-norakorik gabe gerran, inongo laguntzarik gabe, egun beltzak ikusi beharrean aurkitu zen.

Bere amak arrazoiz izenpetzen zuen: "Maria Azpilkuetakoa, tristea".

XABIER

Etxaberri, Xaberri, Xabier da Nafarroako erreinuaren ekialdean eraikita dagoen gazteluaren izena.

Leire mendiko hegalean, haitz biziaren gainean zutik, Aragoira begira, Nafarroa erreinuko muga zaintzen dago.

Gazteluaren Erdiko dorre sendoak aldamenetan beste bi dorre txikiagoak zituen, baita inguruan babesteko behar ziren harresi, aletegi, gela, ikuilu eta bizitzeko behar ziren sukalde eta beste aretoak ere. Sarrera defendatzeko ur foso bat zuen bere zubi altxakorrarekin.

Erdiko "San Migel" dorrea XI. gizaldian eraikia izan omen zen.

Gu orain kontatzen ari garen garai honetan Joan Jatsuko eta Maria Azpilkuetako ziren Xabier gazteluko etxejaun eta etxeko-andre.

Joan jatorriz Nafarroa Behereko Jatsu herrikoa zen, gizon zuhur eta jakintsua, Boloniako unibertsitatean ikasia, Nafarroako erregearen gortean goi mailako karguak zituena.

Maria jatorriz Baztan haraneko Azpilkueta herrikoa zen, emakume langile eta ekintzailea, etxeko arazoak zuzendu eta aurrera eramateko oso trebea eta kristau zintzoa.

Joan Jatsuko eta Mari Azpilkuetakoak bost seme-alaba izan zituzten: Migel kapitaina, Xabierko gazteluaren jabe eta oinordeko izango zena.

Joan, Nafarroako Obanosen ezkondu eta biziko zena.

Madalena, Valentziako Gandian klaratarren komentu itxian sartu eta han santutasun ospean hilko zena.

Ana, Beireko jaun Diego Ezpeletakoarekin ezkonduko zena.

Frantzisko, txikiena, 1505. urteko apirilaren 7an jaioa.

Xabierko gazteluan izeba Biolante ere bizi zen, emakume jainkozale eta santua "miraririk giten ez bazuen ere".

Etxeko jauna, Joan Jatsukoa, Nafarroako erreinuko arazoengatik ia beti etxetik kanpora bizi zenez, honen hutsunea osaba

Martinek betetzen zuen. Gizon jator hau amaren lehengusua zen, eta bere ganadu tratuengatik sarritan Frantzia aldera joaten zelako, frantsesa esaten zioten.

Gazteluko mirabeen artean Grazieta Remon da guretzat eza-gunena. Piriniotako Aezkoa haranean jaioa zen. Umezurtz geraturik beste batzuk honen ondasunen jabe egin ziren. Errukiturik Xabierko etxean hartu zuten. Erdaraz hitz bat ere ez zekien.

Hauetaz gainera, aitaren eta amaren ahaideak sarri ikusten ziren Xabierren: osaba Pedro Zenboraingo abade jauna, beste osaba Pedro Iruñeko justizia eta honen emazte Graziana, izeba Margarita Olloki gaztelukoa, lehengusu eta lehengusinak...

Bestela, gazteluko betiko bizilagunak ez ziren asko: morroi, neskame, artzain eta basozain, errotari eta nekazari, elizako parroko eta bi benefiziadu eta abar... Guztira berrogei lagun izango ziren Xabier gazteluko sendi zabala osotzen zutenak.

Etxekoek beren artean erabiltzen zuten hizkuntza euskara zen.

I. HAURTZAROA (1512)



Beraick koroa ustelkorra lortzeko ahaleginetan dabilzan bitartean guk, ordea, betikoa amesten dugu.

(1. Cor, 9,25)

AZKEN ARNASA

1521. urtean Gaztelako erreinua Komuneroen gerraz nahaspilaturik zebilen. Karlos Va Errege berria bere nagusitzari eusteko Nafarroako lurraldetik arma-gizon asko atera beharrean aurkitu zen. Larrialdi hau nafar leialei beren erreinuaren askatasuna berreskuratzeko une egokia izan zitekeela iruditu zitzaien.

Asparros jenerala nafar-frantses armadarekin Pirinio mendiak igarota ia inor aurka jarri gabe Hego-Nafarroaren jabe egin zen.

Iruñeko hiriak nafar leialei, harresietako ateak zabal-zabalik, ongi etorririk beroena egin zien. Gaztelua bakarrik geratu zen Gaztelako errege Karlosen alde. Gotorleku honen defendatzaileak sutsuena Loiolako seme Iñigo gipuzkoarra izan zen.

Baina... Noaingo borrokaldian nafarren askatasun ametsak betiko galduta gelditu ziren. Bost mila nafar leial zelaian hilik gelditu ziren.

Hala ere, Baztanen Amaiurko gazteluak legezko erregearen alde tinko iraun zuen. Hango defendatzaileen artean Frantziskoren bi anaia, Migel eta Joan, aurkitzen ziren. Amaiur utzi, eta gero ausardi handiz Hondarribiko gazteluaz jabetu ziren. Han iraun zuten zutik amnistiaz baliaturik hainbeste istilu eta nahaspil ondoren etxera itzultzeko ohorezko bide bat aurkitu arte.

Baina Xabierko gaztelua ez zen lehengoa: dorreak lurrean, etxeko ondasunak galdurik... ohorea bakarrik zutik...

Orain zer egin? Nora jo?... Armen bidea itxita zegoen.

Frantzisko seme txikienak, 18 urtekin, bere etxeko ohorea jasotzeko jakinduriaren bidea hartuko zuen.

PARIS 1525-1536

Bere amari eta beste etxekoei azken-agurra eginez, Frantziskok 1525ko udazkenean Pariseko bidea hartu zuen zaldi gainean. Ez zuen bere ama gehiago ikusiko.

Orreaga, Bordele, Poitiers, Orleans... igarota Frantzisko Pariseko hiri nagusiaren aurrean aurkitu zen. Pariseko Unibertsitatea zen aldi hartan kristau herriko ikastetxerik ospetsuena. Hiri handi honek 300.000 bizilagun zituen, eta hauen artean 7.000 ikasle.

Xabierko semea Santa Barbara ikastetxean bizitzen jarri zen, eta bere izena ematerakoan "kantaber", hau da "euskalduna" zela aitortu zuen.

Santa Barbara ikastetxeko eguneroko egitaraua estua zen:

4retan jaiki, eta gosari arin baten ondoren,

5etan lehen eskola...

11etan bazkaria eta atsedena...

Arratsaldean

3retatik 5etara eskolak...

6etan afaria...

7,30etan atsedena...

Astearte eta ostegun arratsaldeak eskolarik gabe opor egunak ziren, eta ikasle askok bi tarte horiek kiroletarako hartzen zituzten.

Xabierko gaztea kiroletan saltokari bikaina zela badakigu.

Santa Barbaran bizitzen Frantzisko gela berean bizitzen lagun jator batekin aurkitu zen: Pedro Fabre Saboiako zen, gazte alai, zintzo eta maitagarria.

Pariseko unibertsitatean ohitura zen, ikasle berriak "maisua" izeneko baten ardurapean jartzea. Xabierren maisua, -ez dakigu izenik-, ez zen bat ere ohitura garbikoa: aurpegiaren agerian zituen sifili gaitzaren pustula higuingarriak. Gaitz nazkagarri honek alden duen Frantzisko zulo beltz horretan erortzetik.

XABIER ETA LOIOLA

Hiru urte zeramatzan Xabierrek Parisen ikasten, eta hara non beste euskaldun bat agertzen den Santa Barbara ikastetxean ostatu eske. 38 urteko ikasle zahar bat zen, Iñigo Loiolakoa, gipuzkoarra. Eta hain zuzen, Xabier eta Fabrereren gela bera eman zioten bertan bizitzeko.

Ez zen asko poztu Frantzisko albiste honekin. Ez al ziren, bada, nafarrak eta gipuzkoarrak elkarren artean etsai izan azken geratean? Ez ote zegoen Xabierko gaztelua lurrean zapaldua, Loiolako dorre-etxeak zutik irauteko? Frantzisko eta Iñigoren artean zulo handi bat ikusten zen...

Loiolako semea Jainkoaren zerbitzurako elkarte bat sortzeko lagun bila zebilen. Pedro Fabre asmo horretarako irabazita zeukan.

Iñigok, begi zorrotzez, Frantziskoren buru-argi eta bihotz-onari laster antzeman zien. Baina nola Xabierren bihotz harroxko hura Jainkoaren zerbitzurako menderatu?

Etorkizunari buruz Frantziskoren ametsak ez ziren txantxetakoak: Teologia ikasketak amaitu eta Iruñeko elizan goiko karguren bat iritsiko zuen... Eta gero, nork daki noraino igoko zen?

Baina Iñigo zaharrak behin eta berriz Frantzisko gazteari errepikatzen zion: Frantzisko, baina zuri zer mundu osoa irabazita ere, gero zeu galtzen bazara?

Eta ebanjelioko pasarte hau errepikatu bakarrik ez, Iñigok Frantziskoren diru-sakeleko estualdiei begiraturik, isil-misilka ezkutuan diru laguntza pasatzen zion.

Baita gehiago ere. Xabier maisu berriari gustatuko zitzaiona: Iñigok lagunaren artean Xabier maisuaren eskola argi eta goitikakoak goratzen zituen, ikasle talde pilo ugaria haren eskolara zuzenduz.

Unibertsitateko ikasketak luzeak ziren:

Urte beteko gertuketaren ondoren, hiru urte eta erdian filosofia ikasi behar zen, azterketa zorrotz baten ondoren "maisú" titulua iritsi arte.



Zertarako nahi du gizakiak mundu osoa beretzat
izatea horretarako arima galdu behar badu?
(Mt, 16,26)

Gero batzuk “erregente” gisa, hiru-lau urte gehiago egiten zizuten ikasitakoa besteei irakasten.

Azkenez lau urteko ikasketa bereziak egin behar ziren, teologian, medikuntzan edo legeetan “doktoze” gradua eskuratu arte.

Frantzisko, “maisu” titulua iritsi ondoren, Beauvais kolegioan, “erregente” gisa filosofia irakasten hasi zen. Honela bere betiko diru falta arinduko zuen, eta era berean asti aldietan goi-mailako ikasketak burutuko zituen...

1529 urtean albiste tristea iritsi zen Frantziskorentzat Xabierko gaztelutik: amaren heriotza. Etxetik urrun eta bakarrik amaren hutsunea saminagoa da sendiko seme txikienarentzat.

Baina isilka Jainkoaren eskua ari zen lanean Xabierren bihotzean. Xabierko seme txikienaren “bustin gogorra”, hala deitzen zion Iñigok, biguntzen hasi zen...

Berrogei egunez gogo-jardunak egitera baztertu zen bakartade batera. Lehen lau egunak baraurik egin zituen, ezer jan gabe. Eta Senako kirol zelaietan saltokari harroxkoa izan zelako orain bere izterrak lokarritz hain estu lotu zituen, loturak haragi bizian sarturik ezin askatzeraino. Eskerrak Jaunari mirariz sendatua izan zelako.

Harrez gero Xabierren gazteluko giltzaren jabe zeruko Jauna bakar-bakarrik izan zen.

MONTMARTRE

Zazpi ziren Elkarte berri bat sortzeko asmoz bildu ziren lagunak: Iñigo Loiolakoa eta Frantzisko Xabierkoa, Pedro Fabre Saboiakoa, Simon Rodrigues portugaldarra, Diego Lainez, Alfonso Salmeron eta Nikolas Bobadilla espainiarrak.

1534ko Andre Mari egunean –abuztuak 15– goizean goiz zazpi lagunak Parisen Montmartreko kaperara zihoazen garrantzizko gauza handi bat egitera: Pedro Fabrek meza emanik, beste lagunek, pobretasun, garbitasun eta Jerusalemenera erromes joateko zintzak egin zituzten.

Eta hori ezin balitz Erromara joango ziren Aita Santuaren agindupean jartzera.


Baina, Jerusalemenera joateko zain zeuden bitartean kristau eta turkoen artean gerra sortu zen, eta erromes txango hori ezinezko gertatu zitzaien.

Iñigo osasunez gaizki aurkitzen zen, eta sendagileek, osasuna berreskuratu nahi bazuen, sorterriko haizeak gomendatu zizkioten.

Horregatik, zazpi lagunek bilera eginik, hau izango zela egokiena erabaki zuten: Iñigo lehorrez bere jaioterri Azpeitiara joango zen, handik gero itsasoz Erromara joateko. Eta beste lagunak oinez Erromara abiatuko ziren denak batera han Aita Santuaren esanetara jartzeko.

Bien bitartean gure zazpikote lagun taldea beste hirurekin gehitu zen: Klaudio Jay, Paskasio Broet eta Joan Koduri, hirurak frantziarrak.

1537ko udazkenean Frantziskok bere lagunekin, Frantzian hamaika urte egin ondoren, Paris utzi eta Erromarako bidea hartu zuen.



Eta beraiek, dena utzi, eta jarraitu egin zioten.
(Luc, 5, 11)

PARISETIK ERROMARA

Gure bederatzi lagunek Parisetik Erromara Zuzenean jo gabe, guduaren gora-beherarengatik, Suitzako lurraldeetan zehar, inguru handi bat egin beharrean aurkitu ziren.

Frantziako muga igarota, Metz hiriaren ondoan, enperadorearen armadarekin aurkitu ziren. Bazter guztietan erreketeta, lapurreta eta hilketen arrastoak ikus zitezkeen.

Gero Suitza aldera sartu ziren, protestanteak nagusi ziren lurraldera. Hemen elizak erreta, santuen irudiak hondatuta, komentuek hustuta, katolikoak baztertuta eta zapalduta aurkitu zituzten.

Negua gainean zen, eta bideak elurrez estalita, bidaiaria oso neketsu egiten zitzairen. Eta gainera, gauaz atsedean pixka bat hartzeko ostaturen batera heltzen zirenean, askotan han zeuden protestante maisuak erlijio gaietan Pariseko jakitunekin eztabaidan sartzeko beti prest.

Azken batean, 1537ko urtarrilaren 8an bederatzi lagunek Venezian Iñigorekin bat egin zuten. Asko poztu ziren.

Loiolako semea osasunez askoz hobe sentitzen zen. Azpeitian hiru hilabete egin ondoren, Gaztela aldera bere lagunaren familiak bisitatu eta zenbait arazo konpontzera abiatu zen.

Nafarroako Obanos herrian Frantziskoren anaia Joan bizi zen Joana Arbitzukoarekin ezkondu. Iñigok Frantziskoren gutun bat zekarren etxeko jaunarentzat. Eskutitz hartan Xabierko seme txikiak eskerrak ematen dizkio anaia zaharragoari Parisen ikasten ari izan zen bitartean berarekin hain eskuzabal agertu zelako, eta aurrerantzean ere berdin jarraitzeko eskatzen dio.

Gero Jainkoari eskerrak ematen dizkio Iñigo ezagutu zuelako, honek lagundu baitzion lagun maltzur eta gaiztoengandik alde egiten. Azkenez, bere anaiari esaten dio: "Arren, eskatzen dizut Iñigori neuri bezala sinesteko, honen hizketa eta aholkuek on asko egingo dizutelako".

Venezian beste lagun bat hartu zuten beren artean: Hozes batxiler espainiarra.

Jerusalenerako erromes ontziaren zain zeuden bitartean Veneziako eritetxeetan lan egingo zuten gaixoak zaintzen. Xabier, Lainez, Fabre eta beste bi lagun "osaezinen" ospitalean hasi ziren lanean.

Halako batean gaixo batek Xabierri bizkarrean hazka egiteko eskatu zion. Zauri nazkagarriak ikusiz biguina eman zion Xabier erizain berriari... Xabierrek zornea eskuekin igurtzi, eta gero hartzamarrak ahora eraman zituen xurgatzeko. Gau osoa eraman omen zuen Xabierrek ezin lorik eginez, eztarria kutsaturik zuela pentsatuz.

JERUSALENERA?

Jerusalenera zihoazen erromesak ohitura zen Aita Santuari bedeinkapena eskatzera Erromara joatea.

Xabierrek eta honen lagunek, pobretasunaren nekeak biziago sentitzeko, bidaia hori inolako diru laguntzarik gabe egitea pentsatu zuten.

Ibilaldiaren zati bat itsasoz egingo zuten, eta bestea lehorrez. Eta behar zuten jana eskean, limosnaz, eskuratzeko hironaka banatuko ziren.

Baina udaberrian Po ibaia gainezka zetorren, eta gainera ibai honen aldameneko herrixkak oso pobreak ziren. Baten baino gehiagotan Pariseko maisuak afaldu gabe lurtean etzanda lo egin beharrean aurkitu ziren. Eta itsasoz, ordea, beltzago: batelzainari ordaintzeko alkandora ere saldu behar izan zioten... Nekeak neke, Aste Santurako Erroman zeuden.

Paulo III.a Aita Santuarengana aurkeztu zirenean, honek Pariseko maisuen jakinduria zenbaterainokoa zen aztertu nahirik, gotzain, kardinale eta teologo talde baten aurrean, teologiari buruzko "disputatio" delako bat azaltzea erabaki zuen. Eta hain pozik geratu zen Aita Santua, bedeinkapena bakarrik ez, baita Jerusalemara joateko diru laguntza ere eman zien. Baina ikustaldiaren azkenean Paulo III.ak erantsi zien: "Ez dakit, ba, Jerusalemara joan ahal izango zareten".

Arrazoia zuen Aita Santuak eta laster zabaldu zen albistea: Veneziako errepublika turkoekin gerran hasi zela.

Bazkoa ondoren pozez zorutzen itzuli ziren paristarrak Veneziara.

APAIZ EGINA

1537ko ekainak 24, San Joan Bataiatzailearen jaietan, Xabier eta Iñigo, Lainez, Rodrigues, Bobadilla eta Kodure apaiz sagaratuak izan ziren. Salmeronek oraindik pixka batean itxaron beharko zuen gazteegia zelako. Apaiz egin zituen Arbeko gotzain jaunak geroago esaten omen zuen: “Apaiz asko egin ditut, baina aita haiek sagaratu nituen adinako pozik ez dut behin ere nire bihotzean nabaritu”.

Xabier gero, Salmeron lagun zuela, Padua ondoko Monselize herrixkara baztertu zen, berrogei egunez bakardadean hango txabola baten babesean otoitz eta penitenziari leku emateko.

Salmeron apaiz ordenatu zenean denak Vizenzara bizitzen joan ziren. Han bizi ziren aurretik komentur zahar batean Iñigo, Fabre eta Lainez.

Vizenzan eman zuen Frantziskok bere meza berria, beste lagunekin batera. Iñigok bere meza berria atzeratu egin zuen Jerusalemenera emateko asmotan edo. Geroago ikusiko dugunez, Xabierrek aparteko debozio hunkigarria sentitzen zuen meza ematerakoan.

Vizenzan gure lagunek Veneziako bizi modu berdina egiten zuten: atez ate limosna eskatu, ospitalean gaixoak zaindu, kaleetan italiara mordoiloan predikatu, hiritar guztiei ikasbide ona emanaz.

Baina turkiar eta Veneziaren arteko gerra luzarora zihoan, eta horrela Jerusalemenera joateko aukera geroago eta urrutiago ikusten zen. Horregatik inguru hartako herrietan banatzea izango zela onena erabaki zuten.

Xabier eta Bobadilla Boloniara joango ziren.

BOLONIA

Bolonian meza ematerakoan bi apaiz haien debozioak hain zirrara sakona egin zien entzuten zeuden bi emakumeei non beren etxera bizitzera joateko gonbidatu zituzten. Halako emakume bat Santa Luzia elizako erretorearen iloba zen, eta honek bi apaizak bere etxean pozik hartu zituen, baina hauen aldetik baldintza batekin: egunero bizitzeko behar zutena atez ate limosna eskatuz lortuko zuten.

Erietxean gaixoak zaindu, hauentzat limosnak eskatu, meza eman eta aitortzak entzun, kale gurutze eta enparantzetan predikatu. Honelakoak ziren Pariseko maisuen lanak.

Gaixoentzat limosnak gehitu egin ziren, aitortzak ugaritu egin ziren, eta Jaunaren hitza entzutera hurbiltzen zirenak geroago eta gehiago ziren. Boloniako hiria erlijio gaietan aurpegi berri batekin agertzen zen.

Aste santua etorri zenean, diote, Xabierrek hain debozio handiaz eman zuela Gurutze Santuaren meza non bizien oroipena egiterakoan Goiko Izpirituak hartuta, ordu betean geldi-geldi geratu zela. Eta denek santutzat hartu zutela.

Bolonian zeudela etorri zitzairen Paduan Hozes Batxilerra hil zenaren albistea. Hau izan zen lagunen artean lehena bizitza hobera igaro zena. Hildakoaren hutsunea betetzeko Bobadilla Paduara joan beharrean aurkitu zen, eta Xabier Bolonian bakarrik geratu zen.

Lanaren lanez eta nekearen nekez Xabier gaixotu egin zen, eta oso larri gaixotu ere, ia heriotzaren ateetara heltzeraino.

Oraindik guztiz sendatu gabe aurkitzen zen Xabier, eta gari-zuma inguruan Jaio eta Bobadilla Ferraratik Erromarako bidean Boloniatik igaro ziren, eta Xabier ere bere bi lagunekin Erromara abiatu zen.

Boloniako kristauak oso atsekabeturik utzi zituen.

ERROMA

Xabier Erromara heldu zenean haren aurpegi zuri eta argala ikusiz lagunak ikaratuta gelditu ziren. “Osasuna betiko galdu du”, pentsatu zuten. “Ez du gehiago ezertarako balioko”.

Erromako ipar aldean Pintzio mendi magalean mahasti bat zegoen etxetxo bat erdian zuela. Han bizi zen Iñigo bere lagunekin; eta hara joan ziren bizitzera gure lagunak ere.

Mahasti jabeak bere morroiari agindu zion, nolakoak ziren Pariseko maisuak arretaz zelatan egoteko... Ongi ikertu ondoren morroiak bere nagusiari esan zion: santuak dira. Lurrean lo egiten dute, eta egunez hirian atez ate bildutakoa gero txiroen artean banatzen dute.

Pintzio mahastiko etxea txikia zela eta, Erroma hiri barruko beste etxe lasaiago batera pasatu ziren bizitzera. Handik irteten zirenen egunero, limosna eskatu, gaixoak zaindu, predikatu, presoak bisitatu, eta beste kristau lanak egiteko.

Paulo III.a Aita Santuak behin baino gehiagotan gonbidatu zituen “Pariseko maisuak” bere aurrean teologi jakinduria erakustera. Halako batean elizaren buruak esan zien: Zergatik nahi duzue Jerusalem-era joan? Jainkoaren Elizaren alde lan egin nahi baduzue Italia duzue egiazko Jerusalem.

Aita Santuaren hitz hauek beren artean erabiliz, kristau eta turkiarren arteko guduak luzaro irauten zuela eta... Jerusalem-era joateko ate guztiak itxita zeudela eta... Kristoren ordezkoko Aita Santuaren agindupean jartzea izango zela egokiena erabaki zuten.

Agertu ziren, bada, Aita Santuarengana, eta edozer eliz lanetarako prest zeudela eta beren buruak eskaini zizkioten. Paulo III.ak Erromako elizetan lanean jarri zituen. Xabierri –frantsez hizkuntza ongi ezagutzen zuenez– San Luis frantsezen eliza izendatu zioten predikuak egiteko.

Han ari ziren Pariseko maisuak mezak eman, aitortzak entzun, umeei dotrina irakatsi, gaixo, txiro eta presoek lagundu... eta

ahal zuten guztiei on egiten. Erromatarrak txunditurik zeuden, antzinako apostoluen bizitza egiten zuten Pariseko maisu haiekin.

1538-39 arteko negua oso luze eta hotza izan zen, eta Italia osoan, baina batez ere Erroman, gosete gorria nagusitu zen. Kale bazterretan gosez hildakoak nonahi ikus zitezkeen.

Pariseko maisuak egunez atez ate limosna eskatu eta bildutakoa gero behartsuen artean banatzen hasi ziren. Ikustekoa zen Xabier bere lagunekin batera egun sorta galantak bizkarrean kalez kale etxera bidean.

Bizi ziren etxe zahar hartan su handi bat eginez, behartsuak berotzeko haren inguruan jartzen zituzten, eta gero zopa bero eta beste zerbaiten bidez haien gosea aserik, otoitzak eta dotrina santua irakasten zizkieten. Honela 300 behartsu heriotzatik atera ziren.

Bien bitartean Lagundia ugaltzen eta zabaltzen zihoan. Aita Santuaren aginduz bidaliak izan ziren: Fabre eta Lainez Parmara, Broet Sienara, Bobadilla Napolesera, Jaio Bagnoreara, Kodure eta Salmeron Irlandara.

Sakabanatu aurretik pentsatu zuten ordurarte izandako beren arteko adiskidetasun loturak ez zirela eten behar, eta horretarako gutunen bidez elkarren berri izatea oso egoki eta beharrezko izango zela.

Italian zeudenak astean behin idatziko zuten Erromara, eta urrutirago bizi zirenak hilean behin. Erroman bilduko ziren denen albisteak, eta gero hemendik bakoitzarengana bidaliak izango ziren. Idazkari bat beharko zen horretarako, eta Xabierrek egingo zuen lan hori gaixoaldian galdutako indarrak suspertzen zituen bitartean.

AGUR EUROPARI

Hamaseigarren mendean gu bizi garen lur honetan aurkituntza handiak egin ziren: Amerika, Afrika eta Asiako lur zabalak aurkituak izan ziren. Europatik alde haietara ehundaka eta milaka armagizon, merkatari eta abenturazale joaten hasi ziren zorte hobe baten bila. Baita misiolariak ere hango fedegabeak kristau egitera.

Laster agertu ziren Erroman errege kristauen enbaxadoreak Aita Santuari lurralde zabal haietarako misiolariak eskatzera. Pedro Maskarenhas Portugaleko enbaxadoreak Pariseko maisuak ezagutu zituenetik asko estimatzen zituen. Inñigorengana aurkeztu, eta Portugaleko erregearen menpean zeuden Asiako lurraldeetarako sei misiolari eskatu zizkion. Inñigok "sei" hitza entzunik, erantzun zion: "Jesus, enbaxadore Jauna, berorrentzat sei ematen badituz, munduko gainerakoentzat zer geratzen zait?".

Rodrigues eta Bobadilla izan ziren Indiarra joateko aukeratuak, baina...

Makalik aurkitzen zen Inñigo aldi hartan, eta ohe ondora Frantziskori deiturik, esan zion: "Badakizu, maisu Frantzisko anaia, Aita Santuaren aginduz gure arteko bik Indiarra joan behar dutela. Eta lan horretarako izendaturik zegoen Bobadilla bere gaixoaldiagatik ezin dela joan. Bestalde, enbaxadoreak presa handia du eta ezin du luzaroago itxaron. Jaungoikoak lan honetarako zu aukeratu zaitu. Hau da zure lana. Eginkizun hau zuri dagokizu".

Xabierrek alaitasun handiz erantzun zion: "Hemen nauzu, aita. Prest nago".

Galtza zahar batzuk eta sotanatxo bat konpondu, eta Frantzisko bizkor-bizkor Vatikanora joan zen Aita Santuaren bedeinkapena eskatzera...

Hurrengo egunean Erromako lagunei azken agurra egiterakoan Inñigok Frantziskori bularreko alkandora eskatu zion, ea nahiko arroparik soinean zuen ikusteko. Eta alkandora huts

hutsik zuela oharturik, esan zion: “Baina, Frantzisko, honela?”.
Eta arropa gehiago emateko agindu zuen.

Gero Xabier otoitz egiteko brebiarioa, eta beste zenbait liburu gutxi harturik berehala enbaxadorearen etxera abiatu zen.

Maskarenhas Jaunak itsasoz aurretik Simon Rodrigues bidali zuen Lisboara ekipajearekin batera. Azken orduan beste apaiz bat elkartu zitzaion portugaldar misiolariari. Misser Paulo zuen izena. Ez zen jakituri handikoa, baina bai borondate onekoa. Honek esaten omen zuen: “Hango jentilek nik esandakoa betetzen badute, denak zerura joango dira”.

IV. MISIOA (1540)



Zu Pedro zara eta harri hauen gainean eraikiko dut nire Eliza.

(Mt, 16,18)

LISBOARA

1540ko martxoaren 15ean irten ziren Erromatik. Hamarren bat lagun ziren enbaxadorearen zerbitzuan zihoazenak: Xabier, kaperaua, idazkaria, Felipe Agilar izeneko espainiar bat, zaldizaina eta lau zpabost morroi gehiago.

Sei egunen buruan Loretora heldu ziren. Erramu igande bezpera zen. Larunbat Santuz Bolonian aurkitzen ziren. Hiri honetan Xabierri lehengo lagun zaharrak ongi etorririk beroena egin zioten. Xabierrek berak kontatuko digu:

Bolonian, 1540ko martxoaren azken eguna.

“Enbaxadore Jauna nola niri atsegin emango bila dabil beti. Nik ez dakit nola eskertu... Erramu egunean Loretoko Andre Mariaren elizan meza eman nuen, eta enbaxadore jaunak bere etxe-koekin aitortu eta jaunartu zuen. Eta berdin bazko egunean ere.

Hemen Bolonian aitortzak entzuten lanpeturik nago, hor Erroman nengoenean baino gehiago”.

Boloniatik alde egin behar zuen orduan, eguna argitu baino bi ordu aurretik, Frantziskoren seme-alaba arimakoak eliz atarian ateak noiz irekiko zain zeuden. Mezan Xabierren eskutik denek jaunartu zuten... Eta gero azken agurra egiterakoan, gehiago ez zirela ikusiko eta, denek negarrari eman zioten...Eta talde batek hiririk irten eta gero ere, atzetik jarraitu zion.

Modenan zehar Parmaraino laster heldu ziren. Hiri honetan jainko lanetan Lainez eta Fabre ari ziren. Xabierrek bi lagun handi hauei azken agurra egiteko gogo bizia zuen, baina tamalez Fabre goiz hartan bertan Bresziara joana zen, oso larri aurkitzen zen gaxo bat ikustera. Xabierrek gurutze astun hau Jaunari eskainiz bideari aurrera ekin zion.

Neguko elurrak urtzean Lonbardiako ibaiak bete betean zetozen... Eta Xabierrek kontatzen digu:

“Italian genbiltzela enbaxadorearen morroi bat, Erroman fraide izateko gogo agertu zuena, ibai zabal bat zeharkatzean, guk ezetz esan arren, uraren indarra hain handia zenez, geure begien

aurrean zaldia eta zalduna biak batera urak eramane zituen. Gu, salba zezan, Jainkoari otoizka ari ginen, eta honela Jainkoak bere eskuz, ez gizonen laguntzak, arrisku hartatik atera zuen.

Gero morroi honek esan zidan: uretan itotzeko arrisku larrian zegoenean gauza batek ematen ziola pena, alegia: bizi zen bitartean heriotzarako behar bezala ez prestatu izatea.

Beste behin Alpes mendiak zeharkatzean enbaxadorearen idazkaria, Ane Lukas, lurralde hartako ostalari batekin haserreturik, birauka hasi zen. Xabierrek esan zion: “Zu, Jauna, ejemplo ona eman beharrean zaude, eta... birauka?” Idazkariak berotan Xabierri hitz gaiztoz erantzun zion. Xabier isildu egin zen... Lau bost ordu geroago Frantzisko bidean aurreratuz, Anes Lukasekin aurkitu zen, eta honek lasaiturik bere errua aitortu zuen.

Aurrerago joanik, idazkariaren zaldiak irrist egin, eta gaine-koarekin mendian behera amildegi ertzean gelditu zen. Xabierrek bere burua arrisku handian jarriarik, estualdi hartatik irteten lagundu zion. Harrez geroztik salbatzailea eta salbatua lagun handiak egin ziren.

LOIOLAN

Alpes mendiak zeharkaturik, Frantziako lurraldean sartu ziren. Liondik hego aldera jo zuten Baionara heldu arte. Hemen Xabierrek bere amaren hizkuntza entzun zuen, Lapurdiko euskara samurra.

Baionatik Hondarribiara. Hiri honetako gazteluak zera ekarri zioten Frantziskori gogora: nola bere bi anaia zaharragoek Migel eta Joanek 1522tik 1524ra arte, Nafarroako ikurrina gotorleku hartako harresien gainean zutik eutsi zuten. Hondarribiatik ez zen hain urruti aurkitzen Xabierko gaztelua. Han bizi zen etxeko jaun eginik Migel bere anaia, eta urrutixeago Obanosen bere beste anaia Joan, eta Beiren bere arreba Ana ezkondua... Baina enbaxadoreak presa zuen, eta Frantziskok bere etxekoei agurrik ezin eginik, gurutze penagarri hau ere Jaunari eskaini zion.

Donostia igaro eta Azpeitiako bidea hartu zuten. Loiolako dorretxean Xabierrentzat “bere arimako aita Iñigo zaurituaren” zenbat oroigarri! Han eman zion Xabierrek etxeko jaun Beltrani Iñigok bere ilobari Erroman idatzitako gutuna, Bertan dio:

“Eskutitz hau daramana Frantzisko nafarra da, Xabierko Jaunaren semea, eta gure Lagundikoa... Aita Santuaren aginduz eta Portugaleko Erregearen borondatez Indietara doa... Baina Frantzisko beraren ahotik nire berri gehiago jakin ahal izango duzu... Honek nire izenean ni hor bertan banengo bezala hitz egingo dizu... Jakin ezazu Frantziskorekin batera doan Portugaleko enbaxadorea gure lagun handia dela, eta berarekin zor handitan gaudela”.

Zenbat egun egin zituzten Loiolan? Ezin zehatz jakin, baina ez asko, enbaxadoreak Lisboa lehenailehen iritsi nahi baitzuen.

Loiolatik, Gasteiz, Burgos, Valladolid, Salamanka eta laster Portugaleko muga... Ekainaren azken egunak ziren Lisboa hiri aberatsa ikusi zutenean. Xabierrek Erromara idatzi zuen: “Erromatik Lisboa hiru hilabete egin genituen bidean, eta beti osasun onez Jainkoari eskerrak”.

LISBOA

Tajo ibaiaren bokalean eraikitako hiri eder, zoragarri honek garai hartan 60.000 bizilagun inguru zituen... Amerika, Afrika eta Asiatik itsasoz ekarritako mila gauza bitxi, aberatsak portu hartan ikus eta eros zitezkeen: klabo eta pimenta espeziak, sedazko oiha-lak, Txinako portzelanak, harribitxiak, baita European ezezagunak ziren jakiak ere.

Eta portu eta kaleetan larru azal kolore guztietako jendeak: Asiako horiak, Europako zuriak, Afrikako beltzak. Hauek lanera-ko esklabo bezala ekarriak.

“Lisboara heldu nintzenean –dio Xabierrek– Simon Rodrigues kuartana izeneko gaitzaz aurkitu nuen, eta nire etorreraz hain poz handia hartu zuen, eta nik hura ikustearekin, bi poz hauek batera jarrita, kuartanak alde egin zion... Hiru egun geroago Erregek Rodrigues eta bioi doi egin zigun, eta oso maitekor hartu gintuen”.

Portugaleko Joan III.a erregea 38 urteko gizon agurgarri, bihotz onekoa zen. Karlos enperadorearen arreba Katalina, emakume samur eta jainkozalearekin ezkondata zegoen. Erreginak 33 urte zituen, Xabierrek baino bat gutxiago.

“Errege-erreginak gure bizitzaren berri zehatzak jakin nahi zituzten: nola elkar ezagutu eta batu ginen, gure helburua zein zen, Erroman gure aurkako erasoaldiak nolakoak izan ziren eta abar. Gure berriak entzuteaz asko poztu ziren. Ordu betean edo hizketan jardun ondoren, beren alaba Maria 13 urtekoa, eta Joan printze txikia 3 urtekoa, guk ezagutzeko, aurkeztu zizkiguten. Atsekabe handiz erreginak esan zigun, nola beste zortzi seme-alaba gehiago izan zituzten, baina txikitan gaitz ezezagun batek jota heriotzak eraman zituen”.

Erregeak etxe bat izendatu zien bizitzeko, eta bere mahaitik jaten eman nahi zien, baina hauek egunero atez ate limosna eskatuz bizi nahiago zutela, adierazi zioten, eta bizi ere erregeren jauregi ondoan zegoen “Santu Guztien” erietxean biziko ziren.

Don Joan erregeak bere jauregian ehundik gora gazte, Portugaleko handikien semeak, zaintzen zituen gorteko ohituretan, kristautasunean eta eskola gaietan edukatuak izan zitezten. Gazte hauek hezitzeko ardura Simon eta Xabierren eskuetan utzi zuen.

Baina laster hasi ziren Lisboako gizon-emakume helduak ere Parisko maisuengana arimako laguntza eskatzera etortzen. Rodrigesek idazten du: “Erromako lagun guztiak hona baletoz ere denentzat nahiko lanik izango genuke”. Eta Xabierrek esaten digu: “Oraintxe bertan gogo-jardunak ematen ari gara teologian lizentziatu biri: bata izen handiko predikaria da, eta bestea erregeren anaia Enrikeren maisua... Beste askok ere gogo-jardunak egin nahi lituzkete, baina denen nahia ezin dugu bete... Zenbatek astero aitortu eta jaunartzen duten ikusita, Jauna goresteko gauza da”.


Beste lan bat ere bere gain hartu zuten: egunero espetxera joango ziren hango presoak bisitatzera. Heriotzara galdutako bi gizona azken orduan Jainkoarekin bakeak egiten lagundu zien; beste bik, ordea, ez zuten holako laguntzarik nahi izan.

Erromatik etorri zen azkenean hainbeste denboran itxarotako berri pozgarria: Paulo III.a Aita Santuak “Regimini Militantis Ecclesiae” buldaren bitartez Jesusen Lagundia onartu zuela.

Portugaleko erregea pozik zegoen Rodriges eta Xabierren lanekin, Indiara joan gabe, biak Portugalen geldiaraztea pentsatu zuen.

Rodrigesek Indiako lana arriskuan ikusirik Erromara idatzi zuen, eta Aita Santuak Portugaleko erregearen eskuetan utzi zuen arazoa. Azkenean denen iritziak entzun ondoren hau izango zela egokiena erabaki zuten: Simon Rodriges Portugalen geldituko zen, eta Frantzisko eta Misser Paulorekin Indiara joango ziren.

Xabier Lisboan zegoen bitartean, han ondoan Koinbrako unibertsitatean Frantziskoren lehengusu txiki Martin Azpilkueteko “Nafar Doktorea” zen ospe handiko irakasle. Honek bere lehengusua Indiara misiolari zihoala jakin zuenean, bere burua eskaini zuen hara joateko, baina adinez heldua zela eta -48 urte- ez zuten bere asmoa onartu.



Joan zaitzte, bada, eta irakatsi herrialde guztiei.
(Mt, 28, 29)

INDIARA

Martxoaren hasiera zen itsasontziak Indiara joateko garai egokia. Baina urte hartan haizerik ez, eta bidaia atzeratu egin behar izan zuten.

Castanheira-ko kondea zen biderako horniketara egiteko arduraduna. Honek Xabierri biderako behar zituen gauza guztien zerrenda egiteko eskatu zion. Eta honek erantzun: “liburu gutxi batzuk, eta Hego-Afrikako hotzetatik babesteko soineko lodi batekin aski dut”.

Kondeak esan zion: “baina arropak garbitzeko, eta ontzian jana prestatzeko eta abar, morroi bat beharko duzu. Ez da egoki zu bezalako gizon prestua boste itsasgizonen parera jaista”.

Xabierrek erantzun zion: “Konde Jauna, berorrek dioen bide horretatik ospe eta prestutasuna lortzeak ekarri du Eliza orain aurkitzen den egoerara. Berorrek dioen ospe hori beste bide honetatik lortu behar da: nork bere soinekoak garbituz, zerbitzarien beharrik gabe bakoitzak bere lapikoa egosiz, eta beti ere lagurkoaren zerbitzuan lan eginez”.

Bien bitartean Erromatik “Breve” izeneko paper-agiriak etorri ziren Xabierko Frantzisko urrutiko Asia aldean Aita Santuaren ordezkoko edo “Legatus Pontificius” izendatzen zutenak.

Xabierrek eskutitzen bidez bere Erromako lagunei azken agurra egiterakoan, esaten die:

“Misser Paulo, Frantzisko Mansillas eta ni aste honetan Indiara goaz. Frantzisko Mansillasi buruz esaten dizuet, ez dela oraindik apaiz ordenatua, baina han Indian gotzain bat dago eta hark apaiz egingo, duela uste dugu.

Martin Alonso de Sousa, errege-ordekoa ere gurekin doa. Hau Indian urte askotan bertan egona da. Gizon jatorra da, eta Indian ere ondo ikusia. Joan den egunean berak esan zidan Indiako jentilen uharte batean fruitu handia egingo genuela, eta hango erregea bera ere, agian, bere erreinuko guztiekin kristau egingo zela.

Azken agurra egitera joan nintzenean Erregeak esan zidan, hango anima gaixoak kristau egiteko nolako gogoia duten, berari luze idazteko.

Kristo gure Jaunak bere grazia eman diezagula beste bizitzan elkar ikusi eta biltzeko, bizitza honetan ez baitut uste elkartuko garenik.

Nik Indiatik, hango lurraldea ezagutu ondoren, luze idatziko dizuet, eta zuek ere guri banan-banan-luze idatzi, han hemengo gutunak urtean behin bakarrik hartzen baitira, eta nahi nuke zuen idazkiak irakurtzen zazpi eguneko lana izan dezagula. Guk hala egingo dugu.

Lisboatik 1541ko martxoak 18 egun.

Bost itsasontzi, "karraka" tankerakoak ziren urte hartan Indiarara joateko Lisboako portuan ainguratuak ikusten zirenak: "Santiago" errege ontzi nagusia, "Itsasoko Lorea", "Gurutze Santua", "Santo Espiritu" eta "Sao Pedro". Martin Alonso de Sousa zen bost ontzien buruzagi.

"Karraka" izeneko ontzi hauek hiru mastadun sabel handiko tramankulu astunak ziren. Beren sabel nasaietako lau-bost solairuetan mila motako janari, edari, gerra-tresna eta salerosketa gaiak hartzen zituen, 900 tonako zama egiteraino.

Ontzi bakoitzean marinela, guda-mutil eta merkatarien artean, ia mila gizonezko kontatuz zituzten. Emakumeek zeharo debekatua zuten Indiarara joatea.

Garai hartako itsas bidaiak nola egiten ziren jabetzeko, jakin beharra dugu, esaterako, "Santiago" ontzian sartu zituztela:

400 upel urez beteak.	1.500 kintal gailera.
200 zahagi ardo.	500 kintal haragi gatzitu.
20 zahagi ozpin.	50 kintal arrainki keztatu.

Baita irin, arraultze, olio, koipe, garbantzu, lenteja, baba, ezti, azukre, baratxuri, tipula eta abar...

"Karraka" bakoitza ur gainean zebilen herri txiki bat zen, bere agintari, epaile, ertzain, dendari eta abar.

1541. urteko apirilak 7 egun zituen. Xabierrek hain zuzen egun hartan 35 urte betetzen zituen.

"Santiago" ontzi nagusiko kanoiak dunbada bat jo zuenean, aingurak jaso, eta bela zuriak haizetara zabalduz, Tajo ibaiaren ur gainetan astiro astiro itsas zabalerantz abiatu ziren. Lehorrekoak agurka negarrez eskuetako zapi zuriei eraginez; ontzietakoak Indietako aberastasunen ametssez, elkarren artean banatu ziren.

Xabier euskalduna, Misser Paulo italiarra eta Mansillas portugaldarra "Santiago" ontzian zihoazen.

LISBOATIK GOARA

Xabierreko Frantziskoren misiolari lanak kontatzen hasi aurretik, Portugal erreinuko azken urteetako zenbait berri jakitea egoki zaigula uste dut.

Vasco de Gama gizon ausarta izan zen, hiru itsasontzikin Afrikako kontinenteari hego aldetik inguru egin eta Indiara iritsi zen lehen gizona. 1498ko urtea zen.

Gero Alonso de Alburquerquek, Vasco de Gamaren lanari jarraituz, 1510garren urtean, borroka gogor baten ondoren, mahomatarrei Goako hiria kendu zien, eta bere ontziak eguzki alderantz Malaka eta Molukaseraino eramane zituen. Honela, ordurarte India eta Ekialdeko itsasoetan jaun eta jabe ziren mahometarrek beren indarra galdu zuten, eta portugaldarrak egin ziren eskualde zabal haietako salerosketen nagusi.

Portugaldarrek beren irabaziak babesteko Afrika eta Asiako itsas bazterretan han eta hemen gotorlekuak harresiz babestuak eraiki zituzten; Afrikan: Mozanbike, Melinde, Sokotora... Indian: Goa, Kotxin, Santo Tome... Eta eguzki alderantzago Malaka eta Molukas... Japon eta Txinaraino.

Indiako bidea luzea, astuna eta arriskuz betea zen. Xabier menditar izanik, ez zegoen itsas gainean ibiltzen ohituta, eta ontziaren kulunka ezin eramane, bidaiaren hasieran bi hilabeteko itsas zorabioa jasan izan behar zuen.

Afrikako gerrian Ginea aldean haizeak jo arte ontziak itsas zabalean geldi geldi egon ziren. Ekuatoreko eguzki betea goian galdatan, upeletako ura usteldu egin zen, eta itsas-gizonak gaixotzen hasi ziren. Zorabioak lagatzen zion tarteetan Xabierrek bere bi lagunekin gaixoei laguntzen zien.

Afrikako hego aldeari ekaitzen bildurrez inguru zabal handi bat eginik, bost ontziek ipar alderantz jo zuten, eta Lisboatik irten zirenetik bost hilabete barru Afrikako Mozanbikera heldu ziren. Hemen ikusi zuen Xabierrek lehen aldiz ekialdea zer nolakoa zen.



Mozañbiketetik Erromako bere laguneri idazten die:

“Itsasoan bi hilabeteko zorabioa jasan izan dut, eta Ginea aldean haizeak jotzen ez zuelako berrogei egunez neke handiak eramán genituen, baina azkenean, Jauna lagun, lurralde honetara iritsi ginen.

Hemen armadako gizonen arimako ardura hartu dugu: aitor-tu, jaunartu eta Jaunaren bakean hiltzen lagunduz. Misser Paulo eta Mansilhasek gorputzez gaixo daudenak zaintzen aski lanik dute. Gurekin datozenek ongi dakite guk lan hau ez dugula gizonen ederra irabaztearren egiten, Jainkoagatik baizik. Jasandako lan hauek hain astunak izan dira, nik mundu guztia irabaztearren ere, ez nituzke egun batean ere eramango.

Itsasoan nengoela igandero predikatzen nuen, eta hemen Mozañbiken ahal dudanean... Luzeago idatzi nahi nuke, baina nire gaitz honek ez dit barkatzen. Gaur zazpigarren aldiz odola aterra didate, eta oso makal nago...

Gure ezagun eta lagun guztiei gorantziak.

Mozañbiketetik, 1542ko urtarrilaren lehen eguna. Frantzisko”.

Otsailaren azken egunetan Indiatik “Coulam” itsasontzia etorri zen Mozañbikera, eta gobernadoreak Goara joateko presa handia zuenez gero, beste bost ontziak gaixoak sendatu arte portuan utzirik, bera Indiara ontzi honetan joan zen, eta Xabier ere gobernariak eskatuta ontzi berean itsasoratu zen. Misser Paulo eta Mansilhas gaixoak zaintzen Mozañbiken geratu ziren.

Goara itsas bidean aste bete barru Melinde mahomatarren hiri heldu ziren. Hango errege mahomatarra Portugaleko erregearen lagun eta mendeko zen, eta Martin de Souza gobernadoreari harrera ospetsua egin zion, opari eta jai handiak eginez.

Xabierrek honela kontatzen digu:

“Mozañbiketetik Goara bidean bakezko diren mairuen hiri batetik igaro ginen. Hiriak Melinde du izena. Portugaleko merkataria-riak beren salerosketak egiteko han askotan geratzen dira.

Hiri honen ondoan portugaldarrek harrizko gurutze handi bat jaso zuten, urreztatua, oso ederra. Hura ikusteaz nolako poza hartu nuen Jainkoak bakarrik daki.

Melinden geundela gure ontziko bat hil zen, eta kristauok gure hilei nola lur ematen genien ikusiz mairuak harriturik geratu ziren. Mairu batek galdetu zidan otoitz egiteko gu kristauok biltzen garenean, ea elizak beterik egoten ziren, aitortuz mairuen artean otoitz zaletasuna asko galdu zela... Hiri hartan hamazazpi mezkita bazirela, baina jendea hirutara bakarrik joaten zela, eta hauetara ere oso gutxi”.

VI. MAHOMETARRA (1542)



Zaindu zaitezte igarle faltsuengandih!

(Mt, 7, 15)

SOKOTORA

Xabier mintzatzzen zaigu:

“Melindeko hiri honetatik Indiara bidean irla handi batera heldu ginen. Sokotora du izena. Lurralde oso pobrea da. Hango lurrak ez du ematen ez garirik, ez arrozik, ezta ardorik eta igalirik ere. Oso pobre eta antzua da. Datil asko dago. Esnea, datilak eta haragia dituzte janari”.

Xabierrek orain esango diguna ulertzeko zera jakin beharra da: irla honetako bizilagunak -12.000 edo- antzina antzianatik kristauak ziren. Beraiek esaten dutenez, Santo Tomas apostolua izan zen lurralde hartan Jesusen ebanjelioa predikatu zuena. Baina gero mahometarren menpean erori, eta hauek esklabo bezala erabili zituzten. Hala ere, apaizik eta beste inongo laguntzarik gabe, beren bakardadean, kristau fedean iraun zuten, Alonso Alburquerque portugaldarrak berriz askatasuna ekarri arte.

Eta Xabierrek honela jarraitzen du:

“Irla honetakoak kristauak dira, eta izen hau gora handian dute. Jende oso ezjakina da. Ez dakite irakurten ezta idazten ere. Libururik ez dute. Elizak badituzte, baita gurutzeak eta argi-ontziak ere.

Herri bakoitzak bere “kakiz” edo apaiz antzeko bat du, baina hauek ere ez dakite irakurtzen. Otoitz asko buruz ikasiak esaten dituzte, baina otoitz hauek beren hizkuntzan eginak ez direlako, zer errezatzen duten ez dakite. Santo Tomas apostoluari debozio handia diote.

“Kakiz” hauek bataioa zen den ere ez dakite. Nik, herri haue-tara joan nintzenean, mutil eta neska asko bataiatu nituen, eta beren gurasoek hau pozik ikusten zuten. Beren pobretasunetik zeukaten guztia ematen zidaten, eta beraiekin geratzeko arrenka eskatzen zidaten, denak -handi eta txiki- bataiatuko zirela hitz emanez.

Nik gobernadore Jaunari uharte honetan geratzeko baime-
na eskatu nion, baina honek erantzun zidan lurralde hartara
turkiar etsaiak sarri etortzen zirela, eta ni han bakarrik bahituta
eramateko arriskuan geratzen nintzela; eta gero ere, bazirela
beste kristau batzuk Sokotorakoak baino premia handiagoan
aurkitzen zirenak, eta beste lan hau gure Jaunaren zerbitzu han-
diagorako izango zena”.

G O A 1542

“Otsailaren azken egunetan Mozanbiketik irten eta maiatza-
ren seigarren egunean Goako hirira heldu ginen”, esaten digu Xa-
bierrek. Lisboatik irten eta hamairu hilabetera.

“Ikusi duenak Goa, ikusi du Lisboa”, esaera zaharra zen. In-
diako hiriburu hau hain zen ikusgarria benetan. Hango portu za-
balean Europatik eta Ekialdetik itsasoz ekarritako mota guztietako
salerosgaiak ikusten ziren: janariak eta edariak, sedak,
portzelanak, armak, larrukiak, espezieak, perlak...


Portu inguruan eta kaleetan larru kolore guztietako jendea
ikusten zen: Afrikatik ekarritako esklabo gizandi beltzak, Indiako
beltzaranak, Malasiako larru hori begi txikiak, eta batez ere harro-
-harro portugaldar soldadu eta merkatari zuriak, Portugalen ezer
gutxi zirenak, baina Indian zarbait baino gehiago izatera jasoak,
beren ustez, behintzat.

Emakumeak Indiara joatea eragotzita zegoenez, portugaldar-
rak bertako emakumeekin ezkondu beharrean aurkitzen ziren,
baina askori ezkondu baino errazago merkatuan esklaba gazteak
erostea egiten zitzairen, oso merke saltzen baitziren. Baziren hola-
ko bost eta sei esklaba gazte zituztenak ere ohe-laguntzat hartuak.
Kristau askoren bizitza ez zen mairuenagandik asko aldentzen.

Erljio gaitan ere, bai goikoak eta bai behekoak, oso ezjaki-
nak ziren; behin bataiatu eta gero, ez zuten elizaren beste sakra-
menturik hartzen.

Nolako begiekin ikusi zuen Xabierrek lur berri hau?

“Goa ikusgarria da. Dena kristauena. Frantziskotarren komen-
tu bat dago fraide askorekin, baita Seo eliza bikain bat ere kalonje-
ekin, baita beste eliza asko ere. Ikastetxe bat egiten ari dira, eta ia
amaiturik dago, –San Paulo edo Santa Fe esaten diote– lurralde
hauetako ikasleentzat... Urte gutxi barru, espero dut, hemendik hi-
rurahun ikasle irtengo direla hizkuntza, nazio eta jende guztietakoak,
gero beren lurraldeetan Kristoren fedea zabalduko dutenak”.



Haur hauetariko bat babesten duenak ni neu babesten nau.

(Mt, 18,5)

Goara heldu eta Xabierren lehen eginbeharra Joan de Alburquerque gotzain jauna ikustera joatea izan zen. Gotzain jator honen elizbarrutia Afrikako hegoaldean hasi eta Indian zehar Malakaraino zabaltzen zen. Ia mundu erdia, esaterako.

Lehen agurrak egin ondoren Xabierrek gotzain jaunari zera esan zion: Aita Santuak izendatuz “Legatus Pontificius” karguarekin zetorrela bera, baina gotzainaren baimenik gabe ez zuela kargu hori erabiliko. Apaltasun honekin gotzainaren bihotza betiko irabazi zuen.

Goako lanak Xabierrek berak kontatzen dizkigu:


“Goara etorri eta berehala bertako gaixoak aitortzen eta beraietara Gure Jauna ematen hasi nintzen. Eta hainbeste ziren aitortu nahi zutenak, ni hamar zatitan banaturik ere, aski lanik izango nuen. Goizean gaixoak aitortu ondoren osasunez ongi zeudenak etortzen ziren aitortzera. Gero eguerdian espetxera joaten nintzen hangoak aitortzera, baita gogo jardunak ematera ere.

Hauek aitortu ondoren, ospitale ondoan zegoen Andre Mariaren ermitan mutikoei otoitzak, kredo eta Jainkoaren legeko aginduak irakasten nizkien. Hirurehunik gora etortzen ziren entzutera. Igande eta jaietan eguerdi ostean Andre Mariaren ermita hartan bertan jende helduei gure fedeko egiak irakasten nizkien. Igandetan hiritik kanpora legenardunei (lepradunei) meza ematera joaten nintzen. Erietxe hartan zeuden guztiek aitortu eta jaunartu zuten. Nire lagun handiak egin ziren”.

Eskolagabeko jendeari kristau dotrina buruan sartzeko Xabierrek euskal bertsolarien bidea hartu zuen, hau da: katuen bidez letra buruan sartzea... Goako kale eta bazterretan Xabierrek dotrinar irakatsitako kantuak entzuten hasi ziren.

Goztzen jaunak, pozez zoraturik, Xabierren “metodoa” jarraitzeko gomendatu ziren apaizei.

Bost hilabete egin zituen Xabierrek Goan lan hauetan.



PESKERIA

Irailaren azken aldean gotzainari, gobernadoreari eta lagunei agur eginik, Xabierrek bere lehen misio lurraldeko bidea hartu zuen, hango hizkuntza zekiten San Paulo seminarioko hiru apaizgai berekin harturik.

Xabierren ongile Kosme de Torrek galdetu zionean zer beharko zuen lurralde bero hartara joateko, Xabierrek hau bakarrik eskatu zion: larruzko oinetakoak hondartza kiskalietan oinak erre gabe ibiltzeko, eta txapel antzeko beste larruki bat burua eguzkiaren berotik babesteko. Besterik ezer ez.

Baina, utz diezaigun Xabierri berari kontatzen:

“Gobernadore jaunak kristau asko egingo diren lurraldera bidaltzen nau. Gobernadore jaunak kristau berri hauek asko maite ditu. Itsas bazterrean bizi dira, eta itsasoak emandakotik bizi dira; perla arrantzaleak dira.

Duela zortzi urte mairuak etorri eta arrantzarako behar zizuten ontziak lapurtu zizkieten, baita batzuk atxilotuta eraman ere bai. Gobernadore jaunak hori jakin zuenean, haien atzetik armadarekin joan, eta guztiz hondatu zituen, lapurtutako ontziak beren jabeen itzularaziz, eta atxilotuak askatuz. Horregatik lur horietako kristauek gobernadore jauna asko maite dute, eta honek bere seme-alabatzat ditu”.

Hara joan ziren gero Goako apaiz batzuk, eta 20.000 parabar bataiatu zituzten. Baina hango hizkuntza ez jakinik, itzuli egin ziren, hango kristau berriak laguntzarik gabe utziz.

Nolako zen Xabierren lehen misio lurraldea?

Lurralde lehorra. Zuhaitz gabeko hondartza zabalak, eguzkiak erreak.

Han bizi ziren bustinezko txaboletan “paraba” izeneko 20.000 kristau berri 30 herrixkatan sakabanaturik. Tuticorin zen hiri nagusia. Hemen jaiok ziren Xabierren hiru apaizgai laguntzaileak.

Parabak gorputzez ongi tajutuak ziren. Ile beltza buruan korapilatua, belarrietatik urrezko edergailuak zintzilik. Gizon eta emakumeak gerritik beherako zapi batekin janzten ziren.

Udaberrian gizonezkoak Zeilan (gaurko Sir Lanka) uharte aldera joaten ziren “perla arrantzura”. Itsasoko uretan murgildurik, itsaspeko arroketan itsasitako txirlak aiztoekin askatu, eta gero lehorrera ekarririk, txirlek bere barruan zituzten perlak merkatariei oso garesti saltzen zizkieten.

Zer-nolako zirrara egin zion Xabierri lurralde berri honek?

“Lurralde honetan ez dira portugaldarrak bizi, oso agorra eta pobrea delako. Hemengo kristauak, gure fedea nork irakatsi ez dutelako, kristau izena bakarrik dute”.

Tutikorinera heldu zenean kristau fedeko egiak hango hizkuntzara itzultzea erabaki zuen, hau baitio Xabierrek: “Nik ezin nien haiei ezertxo ere ulertu, ezta haiek niri ere, haien hizkuntza malabarrera baita, eta nirea euskara”. Eta hemen hau adieraztea zilegi bezait: Xabierrek frantses, gaztelania, portugez eta latin hizkuntzak ezagutzen zituen, baina “nire” hizkuntza euskara da aitortzen du berak.

Tutikorinen lau hilabete egin zituen kristau dotrina malabarreraz jartzen. Lan neketsu hau amaitu ondoren, dena buruz ikasi, eta kalez kale eta herriz herri hasi zen irakasten. Umeak zituen lan honetan laguntzailerik gartsuenak. Berari entzun diezaiozun:


“Lurralde honetako auzo batera heltzen naizenean, bataiatu gabeko ume guztiak bataiatzen ditut. Honela talde handi bat bataiatu nuen. Hemengo mutiko-neskatoek ez zidaten ez jateko, ez lorik, ezta errezuak egiteko astirik ematen, beraiei otoitzak irakaste-ko eskatuz. Orduan ikasi nuen Jesusek esana: haiena da zeruetako erreinua”.

“Han egon nintzen bitartean, hainbeste jende etortzen zen nigana beren gaixoak ikustera joateko eskatzera, aski lanik nuen ebanjelioak irakurri, bataiatu, beren galderee erantzun, hildakoei lur eman, eta abar egiteko. Ez zidaten bakean uzten, baina nik ezin nien ezertxo ere ukatu fedean makaldu ez zitezen”.

“Behin denak jentilak ziren herri batera heldu nintzen, eta bertakoek ez zirela kristau egiten esan zidaten, beren nagusiak, jentila izanik, inor kristau egiterik nahi ez zuelako.

Toki honetan emakume bat aurkitu nuen hiru egunez ume izateko haur minetan zegoena, eta bere bizia arrisku handian zegoen. Ni etxe hartara joan, eta Jesusen izena uste osoz erregutzen hasi nintzen, eta, Jauna lagun, emakumea fedeko egiak sinestera etorri zen. Ea kristau izan nahi zuen galdetu nion nik, eta berak bihotz bihotzez hori nahi zuela erantzun zidan. Ebanjelioak erre-zatu nituen, eta gero bataioa eman nion. Eta gero zer gehiago? Bataiatu ondoren berehala umea izan zuen.

Gero bere senarra eta seme-alabak eta jaio berria ere bataiatu egin nituen etxeko beste guztiekin. Etxe hartan gertatua lurralde guztian zabaldu zen, eta herri honetako beste guztiek –handi eta txiki– bataioa hartu zuten”.



Sinestu eta bataioa hartzen duena, hori salbatu egingo da, baina, sinesten ez duenak bere galzoria bilatuko du.

(Mc, 16,16)

BRAHMANAK

Honela ikusten ditu Xabierrek Indiako brahmanak:

“Badira hemen jentilen artean brahman izeneko batzuk, idoloen etxeen ardura dutenak. Pobreak eta ezjakinak engainatzen dituzte, esanez: idoloek honelako edo halako gauzak eskaintzea nahi dutela. Eta gauza horiek dira hain zuzen brahmanek beraiantzat eta beren emazte eta semealabentzat mantentzeko behar dutenak.

Hauek jende ezjakinei idoloek jan eta edan egiten dutela esaten diete, eta beraiek zerbaiten beharrea aurkitzen direnean, idoloak haserre daudela esaten diete halako gauzak falta zaizkielako. Eta herritarrei beldurra sartzeko esaten diete halako gauzak ez badituzte ematen heriotza edo gaixoaldiak etorriko zaizkiela. Eta herriko gizagaixoek brahmanek esandakoa egiten dute.

Brahman hauek nik beren maltzurkeriak denen aurrean agertzen ditudalako min handia hartzen dute. Bakarrean gaudenean, nola herria engainatzen duten azaltzen didate, baina idolo haiek beste bizibiderik ez dutela eta hauen kontura gezurretan bizi direla aitortzen didate.

Beren maltzurkeriak ez salatzen opariak eskaintzen dizkirate, baina nik ez ditut hartzen. Jainkoa bakarra dela ongi dakitela esaten didate, baina... Nik brahman lagunei nolakoak diren hauen maltzurkeriak esaten diet, eta asko kristau egiten dira. Brahmanik ez balitz guztiak gure federa etorriko lirateke.

Lurralde honetako kristauak ikustatzen auzo batetik bestera nobilela, pagoda asko zegoen leku batetik igaro nintzen, eta halako batean sartu nintzen. Berrehun brahman baino gehiago bizi dira bertan.

Nik galdetu nien: zerura joateko zuen idoloek zer agintzen dute?

Nork erantzuna emango beren artean ezin elkar harturik, azkenean beren arteko zahar batek, laurogei urtetik gorako zahar batek erantzutea erabaki zuten. Honek agindu zidan nik aurretik

gure Jainkoak horretarako zer agintzen zuen adierazteko. Nik haren maltzurkeria ezagutuz, ez niola ezer erantzungo agindu nion, berak esan arte.

Azkenean erantzun zidan esanez: beren idoloek bi gauza agintzen zituztela eurak bizi ziren zerura joateko: lehena, behirik ez hiltzea. Hauek behiak adoratzeko baitituzte. Eta bigarrena pagodetan bizi diren brahmanei limosnak ematea.

Gauza hauek entzun nituenean nik zutiturik eta deidarka beren hizkuntzan kredoa eta Jainkoaren aginduak azaltzen hasi nintzen. Baita gero zer den zerua eta zer infernua ere, eta nortzuk joaten diren batera eta bestera agertu nizkien.


Hitzaldi hau amaitu nuenean, zutiturik besarkada handiak ematen zizkidaten, esanez, kristauen Jainkoa egiazkoa zela, gizonaren adimenarentzat hain gauza egokiak agintzen zituelako.

Baita Jainkoa zuria ala beltza zen galdetu zidaten, zeren lur honetan gizonak beltzak direnez, Jainkoa ere beltza izango dela uste dute. Honegatik beren idolo gehienak beltzak dira, eta kokotioz sarritan gantzutzen dituztelako usain oso txarra ematen dute. Idolo hauek hain itsusiak dira, zeinen ikusiaz bakarrik izutu egiten dute.

Beren galdera guztiei erantzun egokia eman niela uste dut, baina egia ezagutu zutenez gero, kristau egin zitezela eskatu nienean, haiek ere gure arteko askok bezala, erantzun zidaten: gure bizitzan honelako aldaketa egiten badugu, zer esango du munduak? Baita beldur ziren egunero bizitzeko behar zutena galduko zutelakoan.

Brahman bat bakarrik egin nuen kristau. Gaztea eta gizon ona da. Mutikoei dotrina irakasten dihardu”.

IX. SHIVAREN JARRAITZAILEAK (1543)



Itsuak dira eta itsuen gidari

(Mt,15,14)

BADAGAK

Kabo Komoringo erregea hil zenean sortutako nahaspilaz baliaturik, "badaga" izeneko arma-gizon anker batzuk zaldi gainetan tximistak bezala Peskeriako lurralde gainera erori ziren: jendea hil, etxeak erre eta su eta gar dena desegitera. Parabar gaixoek presaka ezertarako astirik gabe, itsasoko harkaitzetara hes egin zuten, jateko elikagairik eta edateko urik gabe.

Xabierrek hori jakin zuenean berehala hogei itsasontzi edateko urez eta janariz beterik prestatu zituen, eta haiei laguntzera atera zen. Baina ekaitz zakarragatik ezin izan zen haiengana heldu eta lehorrez, etsaien artetik arrisku handiak igaroz, azkenean gaixo haiek gosez eta egarriz hiltzetik libratu zituen.

Eta kontatzen dute, behin Xabierrek berak bakarrik, gurutzea eskuan, etsaiei aurre egin ziela, eta badagek izaturik alde egin zutela.

Hilabete edo egin zuen Xabierrek itsasoko harkaitzetan badagen erasoaldia pasatu arte.

MAKUAK

Peskeriaren ipar aldean bizi ziren arrantzaleek ere bataioa eskatzen zuten, Odolez paraben ahaideak ziren, eta hamairu herrixketan bizi ziren. Makuak zuten izena. Hauek itsasoz mahomatarren eta lehorrez jauntxoan morrontzapean bizirik, portugaldarren babespean jarri nahi zuten.

Abagune honetaz baliaturik, Xabier berehala bere laguntzailerkin makuen lurraldera joan zen. Oraingoiz bataioa hartzeko arin-arin lehen prestaketak egingo zituen. Geroago bigarren jorraldian lurra hobeto landu eta presarik gabe oinarri sendoagoak jarriko zituen.

Bataioa hartzeko nola prestatzen zituen Xabierrek berak kontatuko digu:

“Nik txilina eskuetan kalez kale –zahar eta gazte– dotrina entzutera deitzen ditut. Eta bildu direnean egunero bi aldiz otoitzak eta gure fedeko egiak irakasten dizkiet; eta gero ikasitakoa etxean beren guraso eta lagunei irakasteko esaten diet.

Nire dotrina honelakoa da:

Jainko bakarra, hirutan bat dena, zer den azaldu ondoren, nik deiadarka gure fedeko lehen egia beren hizkuntzan iragartzen diet. Eta gero nik esandakoa beraiek errepikatzen dute. Era honetan gure fedeko hamabi artikulua irakasten dizkiet, galdetuz: ea benetan sinesten duten. Kristau izateak hau eskatzen duela, fedeko egia hauek benetan sinestea.

Kredoaren ondoren Jainkoaren legeko aginduak irakasten dizkiet, esanez: lege hauek betetzen dituen delako egiazko kristaua.

Gero era berean “Gure Aita” eta “Agur Maria” irakasten dizkiet.

Harriturik daude hemengo kristau berri hauek Jainkoaren aginduak zein arrazoizko eta zein egokiak diren entzuteaz.

Alde hauetako mutil-neskatoak beren gurasoen aurrean fedearen alde agertzen dira, eta idoloak adoratzen ikusten dituztenei gogor egiten diete.

Hila betean 10.000 bataiatu ditut... Besoak nekatuak ditut hainbeste bataiatuz”.

Kristau talde berri hauek ikusirik, ez da harritzeko Xabierrek Europako bere lagunei zera idaztea:

“Kristau asko ez dira alde hauetan egiten eginkizun santu honetan nork lan egin ez delako. Askotan etortzen zait gogora alde horietako ikastetxeetara joatea, eta Periseko unibertsitatera baitik bat, adierazteko zenbat arima ez diren zerura joaten eta infernua galtzen, beren arduragabekeriagatik”.

GOARA BERRIZ

Urtebete osoa paraben artean lanean ekin ondoren, Xabierrek lagun berrien bila Goara itzultzea pentsatu zuen. Hiri honetara heldu zenean gotzain jaunak, gobernadoreak eta herriak ongi etorririk beroena egin zioten.

Peskerian kristau berriekin hasitako lana, auzo bakoitzean katekistak izendatuz, indartu eta burutu egin behar zen. Horretarako Portugaleko erreginari postaz zera eskatu zion: parabak urtero “erreginaren txapinetarako” ordaintzen zuten zerga katekistak mantentzeko izan zedila. Eta hala gertatu zen.

Pozez zorutzen irakurri zituen Xabierrek Europatik bidalita-ko lehen posta gutunak. Bi urte ziren Lisboatik irten zela, eta hau poza berea Europako bere lagun albisteak irakurtzean! Jesusen Lagundia lagun berriekin asko zabaldu zen. Paulo III.a Aita Santuak Jesusen Lagundia legez onartu zuen. Inigo Erroman aho batez lagundi berriaren buruzagi izendatua izan zen.

Xabierrek bere profesako zinitzak Goako gotzainaren aurrean egin zituen eta lehen paper-agiria Erromara bidaliz berak kopia bat atera, eta Inigo bere aitaren firmarekin batera beti lepotik zintzilik eraman ohi zuen kutxatxoan gorde zuen.

Gobernadoreak hala eskatuz, Misser Paulo Sao Pauloko seminarioan geratuko zen, eta Xabier Mansilharekin Peskeriara itzuliko.

SANTO TOME

Santo Tome izena zuen Indiako sortaldean itsasoari begira zegoen hiri txikiak. Bertan ehunen bat portugaldar familia bizi ziren, hango jendearen artean.

Antzinako tradizio batek esaten zuen, Santo Tomas apostolua, Sokotorako uhartean Kristoren berri ona zabaldu ondoren, Indiarra etorri zela, eta hemen (Santo Tomen) brahmanek hil egin zutela. Antzinako kristauak apostoluaren omenez eliza bat eraiki zuten, eta Xabier hara heldu zenean Gaspar Coelho zen eliza hartako parroko.

Coelhok oso pozik hartu zuen Xabier bere etxean, eta berehala biak lagun handi egin ziren. Parrokoaren etxea eliza ondoan zegoen eta hara joaten zen gauz Xabier otoitz luzeak egitera. Egunez herrian oker zeuden gauzak konpontzen ahaleginak egiten zituen: beren neskameekin bizi ziren asko ezkondu zituen, eta zenbait jentil ere bataioaren bidez kristau egin zituen.


Joan de Eiro hogeitabost urteko merkatari aberatsa aspaldidanik Xabier ezagutzeko gogo biziz zebilen. Eta Santo Tomen aurkiturik, hilabeteko gogo jardunak osoturik, bere ondasun guztiak pobreei eman eta Xabierrekin joan zen. Baina bere asmo beroan ez zuen luzaro iraun.

Joan Barbudo, gizon gordina, abenturazalea zen. Ba omen zeramatzan hamabost urte elizarik zapaldu gabe. Xabier haren lagun egin zen, eta hamabost eguneko gogo jardunak egin ondoren zeharo bihotz berritu zen, hango jendea harrizteraino.

Lau hilabete egin zituen Frantziskok Santo Tomen, eta agur egiterakoan, Coelho parrokoak Santo Tomasen erliki bat eman zion Xabierri oroigarritzat; eta honek lepotik beti zintzilik zerman kutxatxoan gorde zuen.

Bidaia honetan gertatu zen:


Itsas zabalean Frantzisko bere errezuak egiten ari zen bitartean, ikaragarritzko biraoak entzun zituen bere ondoan. Mihi gaiztoko marinel batek seiko-dado jokoan bere ondasun guztiak



Zaindu eta otoitz egin tentaldian ez erortzeko.
(Mt, 26, 41)

galdu zituen. Aspalditik zebilen Xabier ardi galdu hura bide one-
ra ekarri nahirik.

Zer gertatzen da? galdetu zuen Frantziskok. Eta egia jakin
zuenean "pardao" diru gutxi batzuk eman zizkion Xabierrek jo-
koan zorte hobez aurrera egiteko. Eta hala izen zen: galdutako
guztia berreskuratu zuen. Zutitu zen gizona Xabierri eskerrak
emateko, eta Kotxinerira iritsiz gizon hori Aita Frantziskorekin ai-
tortu zen. Xabierrek penitentzia txiki bat eman zion, berak alda-
meneko baso ezkutuan penitentzia latza egiten zuen bitartean.
Hori ikusi zuenean gure bekatari damutuak Xabierri zigorra esku-
tik kendu eta bere burua lazten hasi zen, esanez: Zu ez Aita, neu
naiz bekataria, neuk merezi eta neuk ordaindu behar dut. Handik
aurrera biak lagun handiak izan ziren.



MALAKA 1545

Orain zer egin? Nora jo?

Zeilanen bost fraide frantziskotar ari ziren lanean, beste bi apaizek lagundurik. Peskerian ere Mansilhasekin batera lau apaiz zeuden hango kristauei laguntzeko.

Xabierrek bere barreno kezka agertzen dizkigu:

“Jainkoak ezagutzera eman dit, bere borondatea ni Malakara joatea dela. Eta ezagutze hau hain argi aditzera eman dit, egingo ez banu, nik Jainkoaren nahiaren aurka garbi garbian jokatu nukeela pentsatzen dut. Eta Malakara joateko portugaldarren ontziren bat aurkituko ez banu, mairu edo jentilen katamaran edo al-madi batean joango naiz”.

Joan de Eiro lagun zuela abiatu zen Xabier Malakarako bidean. Antonio Pereira zen ontziaren kapitaina.

Indiatik Malakarako itsas bidea oso arriskutsua zen. Itsas azpia harkaitz eta hondar piloz betea zegoen. Eta horrez gain Sumatra aldea piraten lapurretarako toki egokia zen. Hilabeteko bidairen buruan, Malakako portura iritsi zirenean denek arnasa lasaiago hartu zuten.

Malaka portugaldarren hiri babestua zen. Han bizi ziren nahasian portugaldarrak, malaiarrak, Indiatik etorritako tamulak, baita beste lurralde askotako jendea ere. Malakan biltzen ziren Asia kontinenteko aberastasun ugariak. Baina diruak portugaldarren bihotzak usteldu egin zituen.

Erljio gaietan guztiz ezjakinak ziren. Portugaldar gehienek beren esklaba gazteak zituzten ohe-lagun, eta dirua irabazteko lapurretak, azpi-jokoak, baita hilketak ere ez ziren gutxi izaten.

Egia da, portugaldarren menpeko esklaboak bataiatuak zirela, baina hortik aurrera ez zuten beste kristau ezaugarririk.

Bestela, Malakako klima urte guztiko udaberria zen: egunez bero eta arratsalde trumoi eta euri zaparrada baten ondoren, berriz ere eguzkia agertzen zen.

Gazteluko kapitainak eta elizako parrokoak bakoitzak bere aldetik Xabier beren etxeetara bizitzera joateko gonbidatu zuten, baina honek bere laguntzaile Joan de Eiroekin ospitale ondoko txabola batean bere bizitza egitea nahiago izan zuen.

“Malaka hiri handi honetan ez zait lanik falta”, dio Xabierrek. “Igandero eliza nagusian predikatzen dut, eta nire predikuak hain onak ez izan arren, entzuleen pazientzia handiagoa da nire hitzaldi eskasak baino. Egunero ordu bat edo biau umeei otoitzak irakasten dizkiet... Ospitalean bizi naiz, eta gaixoak aitortzen ditut. Meza esan eta Jauna ematen diet; eta aitortu nahi dutenak hain ugari dira, ezin diet denen beharrei erantzun.

Baina nire lanik handiena beste hau da: latinezko otoitzak makasarren hizkuntzara itzultzea. Oso lan astuna da...

Malakan nengoela Erroma eta Portugaleko posta gutunak hartu nituen”. (Hau zen bigarren aldiz hartzen zituena). “Eta haiek hartzean hain poz handia somatu nuen, eta orain ere behin eta berriz sarritan irakurriz somatzen dut, ni hor nagoela, lagun maiteak eta zuek hemen zaudetela ematen du”.

Xabier bai zela ehiztari fina bekatariak harrapatzen.

Hiru-lau “neskame” zituen portugaldar aberatsen batek bere etxera bazkaltzera gonbidatzen bazuen, hara joango zen alai eta pozik Xabier esandako orduan. Eta bazkal denboran gonbidatu zuenaren dohainak goratuko zituen: nolako etxe dotorea duzun! Bai gozoak gaurko janariak! Sukaldari ona duzula agerian dago. Zerbitzari trebeak dituzula ikusten da.

Eta hurrengo batean: Zenbat neskame dituzu? Nongoak dira? Honela etxe hartako bizilagunen berri jakiten zuen.

Geroago batean ehiza tiropean ikusten zuenean: Halako neskamea bai dela maitagarria eta zuretzat egokia. Har ezazu emaztetzat. Batekin aski duzu.

Eta portugaldar soldaduei: Nik badakit ez zaretela fraideak, baina urtean behin aitortzeak ez du kalterik ekartzen.

Eta merkataria aberatsei: Behartsuetaz ez zaitezte ahaztu. Jaunak zeruan ehun halako gehiagor ordainduko dizue. Han ez da lapurrik.


Xabier denen lagun eta beti alai ikusten zela diote lekukoek.

Malakan zegoela jakin zituen Xabierrek urrutitako albisteak: Malakaren ekialdeko portuak musulmanen menpean zuden, baita Sumatra, Borneo eta Jabakoak ere. Borneotik ekialdera urrutitako Makasarren lurraldea aurkitzen zen. Eta oraindik urrutira- go Molukas irla ospetsuak. Ternate zen salerosketak egiteko porturik egokiena. Hemen egiten zituzten portugaldarrek “klabo” “nuez moskada” eta beste “espezieen” erosketak, gero Europan urrearen truke saltzeko. Portugaldarrek Ternaten gaztelu sendoa bat eraiki zuten beren ondasunak zaintzeko.

Beste gertakari hau ez digu Xabier berak kontatzen, baina lekukoak sinesgarri direla uste dugu:

Konbuture izeneko auzoan ume bat putzura erori zen, eta aldi luze baten ondoren handik aterata ahal izan zuten. Lur ematera zeramatenean Xabierrek umearen amaren negarrak entzun zituen, eta segiziokoak geldiaraziz Xabierrek ebanjelioak irakurri eta umearen gainean gurutze bat eginik, umea eskutik hartu, eta Jesukristoren izenean zutitzeko agindu zion eta gero umea amari eman zion.

Geroago batean norbaitek Xabierri galdetu zionean: zer gertatu zen Konbuturen putzura eroritako umeaz? Honek erantzun zion: egia da nik ebanjelioak irakurri nizkiola, baina umea ez zegoen hilda.



Gaixoen gainean eskuak ezartzean horiek sendatu egingo dira.

(Mc, 16, 18)

TERNATE


Bi hilabete eta erdi egin zituen Villalobosen armadak Anboinan, eta handik alde egin zuenean portua bakean geratu zen, baina Xabier lanaren lanez gaixotu egin zen eta oso larri gaixotu ere. Hala ere hilabeteko atsedean aldiak sendotu eta bizkortu egin zuen; eta haizea lagun jarri zenean Frantziskok Ternateko bidea hartu zuen.

Ternate portugaldarrek urrutiko lurralde haietan zuten azken gotorlekua zen. Handik aurrera ez zuten agintzen.

Joan Eiro Anboinan utzi eta Xabierrek arraun-ontzi batean Ternateko bidea hartu zuen bakarrik. Hemengo jendeak entzutez eta famaz Xabier ezagutzen zuen eta ongi etorrikeri beroena egin zioten. Heldu eta berehala Xabier bere lanean hasi zen: umeak bataiatu, dotrina irakatsi, bakeak egin, aitortzak entzun, predikatu, guztiak zerrurako bidean jarritz.

Gaspar Lopez portugaldarrak berak ikusi eta entzundakoa kontatuko digu: "Jainkoari eskerrak ematekoa da, nola hemen Ternaten umeek kaleetan, emakumeek etxeetan, nekazariak sorotan eta arrantzaleek itsasoan gau eta egun Jainkoa goratzen duten. "Gure Aita", "Agur Maria", "Kredoa", eta gure fedeko beste egiak nola kantatzen dituzten".

1547 urteko garizuma Ternaten sonatua izan zen Aita Frantziskok egindako predikuen frutuagatik: lapurretan egindako ondasunak itzuli, sasi-ezkontzak koupondu, etsaiak adiskidetu, portugaldarren emazteek lehen jaunartzeak egin zituzten.



Nire bizitza Kristo da eta heriotza irabazia.
(Fil. 1, 21)

ANBOINA

Hiru hilabete eta erdi egin zituen Xabierrek Malakan, eta 1546. urteko lehen egunean itsasoratu egin zen bere laguntzaile Eirorekin eguzki aldeko lurraldeak ezagutzera. Borneo eta Jabako irlak zeharkaturik Makasarren lurraldea aurkitzen zen, baina beste apaiz bat hara joan zela jakinik, Xabierrek Anboinaraino aurrera egin zuen.

Baina Xabierri hitza eman diezaiogun:

“Duela zenbait urte lurralde honetako bizilagunak, mahomatarren morrontza ezin eramanez, Portugalen babespean jarri ziren eta zazpi herrik bataioa hartu zuten. Baina bertako apaiz bakarra aspaldian hila zen eta hango kristau berriak laguntzarik gabe geratu ziren.

Irla hauek giroz epelak dira. Euri asko egiten du. Hemengo mendiak hain handiak dira ezen gerra denean etsaiengandik ihes egiteko baso hauetan ezkututzen dira. Lehorrak eta itsasoak sarritan dardar egiten dute. Ikaragarria da. Irla hauetako mendi askok sua botatzen dute, kanoierna baino trumoi handiagoa entzunez. San Migel egunean ni meza ematen ari nintzela, lurrak hain dardara handia egin zuen, mahaia eroriko zitzaidalda beldur nintzen.

Anboinako lurralde honetara heldu nintzenean nire lehen eginkizuna hemengo kristauak ezagutzea izan zen, eta bataiatu ga-be zeuden haurtxo asko bataiatu nituen”.

Mendiz mendi eta basorik basoko ibilaldietan Xabierrek Manueltxo mutikoa Hatibeko kazikearen semea zuen lagun. Manuelek bere zahartzaroan ongi gogoratzen zuen, nola Aita Frantziskok gurutzea erakutsiz, esaten zion: Manuel, bai dela ederra Jesukristogatik bizita ematea!

Anboinako ipar aldean Zerán uhartean “Alturak” bizi ziren basoetan ezkutaturik. Oso basatiak ziren. Gerran hildako etsaiak jan egiten omen zituzten. Hara joan zen beldurrik gabe Xabier portugaldar merkatari bat eta Fausto Rodrigues soldadu gazte bat lagun zituela.

Itsas zabalean zeudela ekaitz gogorra sortu zen eta urak baretzeko Xabierrek lepotik zintzilik beti zeraman gurutzea askatu eta uretan murgildu zuen, esanez: "Jainko Jauna, Zure Seme Jesukristoren nekaldi eta heriotzako irabaziengatik arrisku honetatik atera gaitzazu".

Baina lokarria eten, eta gurutzea uhinen artean galdu zen. Pena handia hartu zuen Xabierrek. Ekaitza baretu, eta hurrengo egunean lehorrera iritsi ziren. Besteek ontzia husten zuten bitartean, han zihoazen Xabier eta Rodrigues hondartzan zehar hurbileko auzo batera, eta hara! karramarro bat agertu zitzaion bere hatzaparretan galdutako gurutzearekin.

Frantziskok belaunikaturik gurutzea eskuetan hartu eta musu emanez Jainkoari eskerrak eman zizkion halako mesedearengatik.

Aste bete tardatu zuten ontzia hustu eta tratu berriak egiten. Egun hauek aprobetxatu nahi izan zituen Xabierrek hango bizilagunei Kristoren berri ona erakusteko. Baina dena alferrik. Mahomatarrak izanik, Jesusen izena entzuterik ere ez zuten nahi izan. Gazte batek bakarrik eskatu zuen bataioa.

XIII. GURUTZEA (1546)



Gurutzean hildako Jesusen bila zabiltzate.
(Mc, 16, 6)

VILLALOBOSEN ARMADA

Zerandik itzultzean Xabierrek Anboinako portua bederatzi galeoi handiz beterik aurkitu zuen. Espainiarrak ziren. Ruy Lopez de Villalobos 1542. urtean Mexikotik 300 gizonekin Filipinas irtetara irten zen lur hura kolonizatzeko asmoz. Baina itsasoko ekaitzak eta izurriteak jota, gora-behera eta arrisku askoren ondoren, azkenean Molukas irtetan portugaldarren eskuetara etorri ziren. Anboinoko portua soldaduz bete zen, eta asko gaixorik zeudenez, Xabierrentzat ez zen lanik falta. Berak kontatzen digu:

“Armada honekin banuen aski lanik, beti aitortzak entzuten, igandeetan predikatzen, bakeak egiten, gaixoei ongi hiltzen laguntzen... Ezin denetara iritsi”.

Villalobos kapitaina bera ere Xabierren besoetan hil zen. Armadako gizonen artean lau fraide agustindar eta beste lau apaiz sekular zetozen. Maiatzean haizea lagun Villalobos zenaren armada Europara bidean Goatik igaro behar zen, eta Xabierrek Goako bere lagunei idazten die:

“Goara dihoazen San Agustinen ordenako fraideek nire berri gehiago emango dizuete, eta ahalik eta ongien hartzeko eskatzen dizuet, maitasunez eta onginahiez. Hain pertsona on eta santuak dira, eta gure bihotz ona merezi dute”.

O MORO

Xabierrek esango digu:

“Malukoren beste aldetik O Moro izena duen lurralde bat dago. Irla horretan duela hamabi urte kristau asko egin ziren, baina bataiatu zituzten apaizak hil zirelako edo, bertan behera utziak izan ziren.

O Moro arrisku handiko lurraldea da, hango jendea azpikeriaz betea baita, eta janari-edarrietan pozoi hilgarriak ematen dituzte. Eta horregatik ez du inork hara joan nahi, hango kristauei laguntzera.


Nik, nire indar gutxi eta makalean, nire itxaropen osoa Kristo gure Salbatzailearengan jarririk, nahiz eta nire bizia arriskuan jarri, O Morora joatea erabaki dut hango kristauen arimako bizitzari begiratzeko. Berak esan baitzuen: Bere bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; eta bere bizia Nire maitasunagatik galtzen duenak, aurkitu egingo du. Eta esaera honen latina ulertzeko hain erraza izanik ere, norbait Jainkoagatik heriotzako arriskuan jartzen duen, esaera honen latina, hain argia izanik ere, ilundu egiten da.

Nire lagunek arren eta arren negarrez eskatzen didate hain arrisku handiko lurraldera ez joateko, eta hori ezinean, hango pozoidun edarien kontrako erremedioak eskaintzen dizkidate. Baina nik, beren borondate onagatik eskerrak emanez, pozoiaren kontrako erremedioak han bertan utzi, eta hau bakarrik eskatzen diet: beren otoitzetan Jainkoaren aurrean nitaz oroi daitezela, hauek baitira pozoiaren kontrako erremediorik onenak”.

Eta lurralde hain arriskuz betera joateko itsasontzirik ez ziotela emango lagunek esan ziotenean, Xabierrek erantzun zien: “besterik ezean igerian joango naiz”.

Xabierren kemena ikusirik, bere adiskide batzuk Aitari laguntzeko prestatu ziren.

O Moroko kristauak ezjakinak ziren. Ez zekiten ez idazten ez irakurtzen. Egurrezko txaboletan bizi ziren, teilatua palma adarrez



Berarekin sofitzen badugu, berarekin irabaziko dugu erreinua ere.

(2 Tim, 2, 12)

estalita. Zuhaitz azalez egindako jantziekin gerri aldea estaltzen zuten. Arroza eta palma arbolaren muina zuten janari. Sorgin, azti eta izpirituen beldurrez bizi ziren. Herriko festetan bizilekuaren inguruan guduan hildako etsaien hezurak agerian jartzen zituzten, dantza eta festa ginez.

Leku basati honetan gora eta behera, auzorik auzo ibili zen Xabier, umeak bataiatu, nagusiei Kristoren berri ona zabaldu, hildakoei lurra eman eta denei kristau bezala bizitzen irakatsiz.

Ez da sinesteko, baina halako lan neketsu eta arrisku guztien artean, Xabierren bihotza pozez zorutzen aurkitzen zen. Berak kontatuko digu:

“Nire lan eta arrisku hauek guztiak Jainkoaren maitasunagatik hartzen ditudalako, nire bihotza zeruko pozez beterik dago. Nire arima Jainkoagandiko atseginez gainezka daukat, eta nire begietatik hainbeste pozezko malko isuriz, ikusmena galtzeko zorian nago. Ez naiz oroitzen nire bizitza guztian hemen baino bihotzeko poz handiagorik nabaritu dudarik. Halako arrisku eta azpikerien artean, etsai eta lagun ustelez inguratutik, hobe litzateke iela hauei “Jainkoagan esperantza” izena jartzea, O Moro lurraldea baino”.

Hiru hilabete egin zituen Xabierrek O Moro lurraldean hangoi zerurako bidea erakusten, eta monzon haizeaz baliaturik, Ternatera itzuli zen.



Zatoz eta laguniezaguz!

(Act., 16, 9)

TERNATEN BERRIRO

Poz handia hartu zuten Ternatekoek Aita Frantzisko berriz ere beren artean bizirik ikusteaz... Eta hau etorri eta berehala bere lanari lotu zitzaion.

Hairun, Ternateko erregea erlijioz musulmana izan arren, Portugaleko erregeren lagun handi egin zen, eta Xabierren lagun ere izan nahi zuen; baina honek kristau egiteko eskatzen zionean beti eragozpen berdina aurkitzen zuen bidean: Hairunek ehundik gora emakume zituen bere Harem taldean. Ez eta bai, zalantza askoren ondoren azkenean honetan gelditu ziren: Hairunek bere seme bat kristau egin, eta bere ondorengo errege izendatuko zuen.

Hiru hilabete egin zituen Xabierrek Ternaten hango guztien bihotzak irabaziz... Eta azken agurra egiteko ordua etorri zenean, hura bai, izan zela betiko agur hunkigarria! Xabierrek berak konstatuko digu:

“Ternatetik irtetean, nire lagunenek negarrak ez entzuteko, gaez itsasoratu nintzen, baina ahalegin guztiaz ere, ezin izan nintzen haien begietatik ezkutatu, eta nire arimako seme-alabengandik alde egiterakoan nire bihotzak ere negar egiten zuen”.

Xabierrek bere ordezeko beste misiolari bat bidaliko ziela agindu zien, baita maisu bat ere umeak eskolatzeko. Gero negarrez banan-banan besarkaturik ontzian sartu zen.

ANBOINAN ETA MALAKAN BERRIRO

Hamar hilabete Ternate eta O Moron ibili ondoren Xabier Anboinara itzuli zen. Hiru aste bakarrik egin zituen oraingoz hiri honetan, baina ez zuen astirik alferrik galdu: Joan de Eiro eta Manueltxo mutikoa laguntzaile hartu, eta lehen ibilitako zazpi herri kristauak bisitatu zituen, auzo bakoitzean elizatxo bat eraikiz, eta katekistak izendatuz.

1547 urteko maiatzean sartu zen Xabier itsasontzian Malakarako bidean. Lurralde haietan jaiotako hamar gazte zeramatzan berekin ontzian Goako seminarioan apaiz egiteko asmoz.

Malakan ontzitik jaistean poz handi bat izan zuen Xabierrek: Europako bi misiolari espero zituen, eta non begien aurrean hiruz: Aita Joan de Beira galiziarra, Aita Nuño Ribeiro portugaldarra eta Nikolas Nuñez filosofia ikasten ari zena. Mansilhasek beldurturik "makalaldian" huts egin, eta misiolaritza lana utzi egin zuen.

Sei aste eman zituen Xabierrek misiolari berriei lurralde haietako ezagutza hartu eta aholkuak ematen. Gero hara bidali zituen Jainkoaren izenean.



BILBAO
UDAIA
AYUNTAMIENTO

Bidebarrietako Liburu-eguzki Zentrat
Biblioteca Central de Bidebarrieta

ATXINAK!

Atxinak! atxinak!, deiadar latzak esnatu zituen malakerrak gauerdian. Atxinak itsas-lapurrak ziren. Bat batean eta ustekabeen tximistak bezala hiri baten gainera erori, eta dena erre, lapurtu eta desegiten zuten.

Atxinak! entzunez batera portuko ontziak eta gazteluko kanoiak dunbadaka hasi ziren. Atxinak beldurturik kalterik egin gabe atzeraka ihes egin zuten... Xabierrek akuilaturik 180 armagizonek atzetik jarraiki zieten.

Pasatu ziren bi hiru aste, baita berrogei egun ere, eta atxinen atzetik joandako armadaren aztarnarik ere ez zen ageri. Jendea Xabierren aurka marmarka hasi zen: zergatik bidali behar zituen gizonak halako eginkizun arriskutsura...

Arazoa honela estu eta larri zegoela, igande batean Xabierrek mezako hitzaldian esan zuen: "Bai, hor ari dira norbaitzuk esaten, sorginekin kontsultatu ondoren, gure armada desegina izan dela. Zergatik zarete kristau hain motelak gure Jaunarengan hain konfiantza gutxi izateko? Poztu eta alaitu zaitezte eta Jainkoari mila esker eman, gure gizonek etsaien aurka garaipen hain handia lortu dutelako. Laster ikusiko dituzue hemen gure artean".

Bizpahiru egun geroago ontzi bat etorri zen albiste pozgarri honekin: Malakatik oso urruti kristauek etsaien ontziak guztiz desegin zituztela... Geroxeago garaileak portura sartu ziren jendeen goraka eta txaloen artean.

Ia sei hilabete egin zituen oraingo aldian Xabierrek Malakan, Indiarra joateko "monzon" haize egokiaren zain.

"Sei hilabete hauetan oso lanpeturik bizi nintzen: bi aldiz predikatzen nuen igande eta jai egunetan: goizean mezatan portugaldarrei, eta bazkalondoan lurralde honetako kristau berriei, egunero gure fedeko egia bat irakatsiz. Eta hainbeste jende etortzen zen entzutera, hiriko elizarik handienera joan beharrean aurkitu nintzen.



Harroen bihotzetako ametsak desegin zituen eta
boteretsuak beren aulkietatik jaitsiarazi egin zituen.
(Lc., 1, 51, 52)

Aitortzak entzuten ere hain lanpeturik nengoenez, denen nahia ezin eginez askorekin gaizki geratu nintzen. Baina nik haserre hauek ez ditut gaizkitzat hartzen Jainkoagatik direlako. Asko ziren igande eta jaiero jaunartzen zutenak.

Haserre zeudenak adiskidetzen ere lan handia nuen, lurralde honetan bizi diren portugaldarrak borroka zaleak baitira.

Hiri honetako mezadun bati gomendatu nion nik egiten nuen erara berak ere dotrina irakasteko, eta baietz esan zidan. Agindutakoa beteko duela uste dut.

Malakatik alde egiterakoan hiriko nagusiak nigana etorri ziren gure Lagundiko bi mezadun eskatuz, beraiei eta beren emazte eta seme-alabei eta kristau berriei dotrina irakasteko, nik egiten nuen bezala. Eta hain benetan eskatu zidaten, ezen beraiekin zorretan geratu nintzela uste dut. Gure Lagundiko jendea hainbestean maite dute. Horregatik 1548ko apirilean ahalegin guztiak egingo ditut gure Lagundiko bi hiri honetara bidaltzeko, hau baita aro egokia Indiatik Malakara itsasontziak joateko.

Malakan nengoela portugaldar merkatari batzuk han urrutiko irla oso handi baten berri eman zidaten, portugaldarrek duela lau-bost urte aurkitutakoa. Japonia du izena. Nire ustez, Indiako beste edozein lurraldeetan baino fruitu gehiago bil daiteke gure fede zabaltzeko, jakinmin egarri handia erakusten baitute, Indiako jentilek ez dutena”.

ANJIRO

Malakan zegoela Jorge Alvarez portugaldar kapitainak bere lagun Anjiro japoniarra aurkeztu zion Xabierri. Gizon hau aspal-ditik bere kontzientzia baretzeko Xabierren atzetik zebilen. Bere jaioterrian zegoela gizon bat hil zuen, eta bere lurraldetik ihes egin beharrean aurkitu zen. Bihotzeko bakearen bila bonzoen monastegi batera baztertu zen, baina ez zuen han nahi zuena aurkitu. Orduan Jorge Alvarezek Europako bonzo Xabierren berri eman zion, eta luzaroan Xabierren atzetik ibiliz azkenean Malakan aurkitu zuen.

Harriturik gelditu zen Xabier Anjiron ahotik entzundakoaz: han urrutian Japonia izeneko lurralde bat aurkitzen zen jendez betea eta gizalege handikoa, jakiteko gogo handia zuena.

Xabier eta Anjiro berehala lagun egin ziren. Anjirok Xabierregatik esaten digu: “Xabier ikusi orduko hartaz txoraturik gelditu nintzen, eta nire bizitza guztiko historia kontatu nion. Eta berak ere ni ikusiz eta besarkatuz hain poz handia hartu zuen, ezen bion elkartzea Jainkoaren gauza zela garbi ikusten zen”.

Eta Xabierrek Anjirogatik dio: “Japoniar guztiak gizon honen antzeko badira, jakinmin handia erakusten dute. Galdera asko egin zizkidan jakiteko gogo handia baitu, eta honekin aurrerapen handiak egingo ditu”.

“Nik galdetu nion, ea ni berarekin hara joango banintz japoniarrak kristau egingo ote ziren, eta berak erantzun zidan: bere lurraldekoak ez zirela berehala kristau egingo. Aurretik galdera asko egingo zizkidatela, eta erantzun egokia jasotzen bazuten, eta batez ere nire bizitza predikatzen nuenarekin bat zetorrela ikusten bazuten, orduan bai, urte eta erdian edo, kristau egingo zirela, beraien arrazoi bidetik dabiltzalako”.

MALAKATIK INDIARA

Zortzi egun bakarrik, gehiago ezin, eman zituen Xabierrek Anjioren ahotik Japoniako berriak jakiten, eta gero Indiako itsas bidea hartu zuen. Anjiro bere beste bi lagun japoniarrekin beste ontzi batean geroxeago joango zen.

“Malakatik Indiarako bidean”, kontatzen digu Xabierrek, “itsasoan ekaitz gogorren arrisku handiak izan genituen. Askok oraindik bizi zela hildakotzat hartu zuen bere burua, eta itsasoan gehiago ez ibiltzeko promes handiak egiten zizkion Jainkoari. Geure bizitzak salbatzearen ahal genuen guztia itsasora bota genuen.

Ekaitzaren indarrak gogorrean nik Jainkoari otoitz egiten nion, gure Jesusen Lagundikoak bitarteko jarririk, baita zeruko santuak ere: aingeruak, profetak, apostoluak, martiriak...Eta batik bat Andre Maria beti birjina dohatsua...Eta azkenez Jesukristo gure Salbatzailearen heriotzako irabazi mugagabeoetan nire itxaropen osoa jarririk, pozago nengoen ekaitzaren erdian, gero handik irten nintzenez bano. Eta ekaitzaren erasorik latzenez Jainko gure Jaunari eskatzen nion estualdi hartatik ateratzekotan, beste estuago batera sartzeko izan zedila.

Eta Jesusen Lagundiari buruz hitz egiten hasten naizenez ez dakit nola bukatu. Jesusen Lagundiaz ahaztu banendi, nire eskuinta ahaztua bedi”.

Goara heldu aurretik Xabier Kotxinen geratu zen, Peskerian lanean ari ziren misiolari berriei ikustaldi bat egiteko. Ez zituen ezagutzen. Hauek ziren: Aita Antonio Kriminali italiarra, adinez gaztea -28 urte-, baina santutasunez heldua eta izatez maitagarria. Manuel Morales, portugaldarra, gazte sutua, oraindik apaiz ordenatu gabea. Aita Enrike Enrikez gaixobera, baina kemen handiko gizona. Aita Zipriano, gaztelarra, 60 urtekoa, benetako gizona. Lankide berri hauekin Xabierren bihotza pozez gainezka zegoen.

Misiolarien bizitza benetan latza zen: bero ikaragarria, janiak urriak, hizkuntzak ezezagunak, hango jendearen izaera basa-

tia... Baina misiolari berriak ezagozpen guztiak Jainkoagatik gaintitzeko prest zeuden.

Hiru aste egin zituen Xabierrek misiolari berriak ezagutu eta hauei nola jardum behar zuten aholkuak ematen. Azken kontsejua eta baliotsuena hau izan zen: "Baina denen gainetik denekin eta edonon maitagarriak izan zaitezte, edozeini mesede egin eta laguntza eman. Honela fruitu asko bilduko duzue".

Gero Aita Kriminali denen nagusi izendatu, eta agur bero bat eginik, Xabierrek Goako bidea hartu zuen.

GOAN BERRIRO

1548ko martxoaren 6an Xabier Goako portura iritsi zenean ongi etorririk beroena egin zion herriak. Han zituen itxaroten Misser Pauloz gain beste bi misiolari berri: Aita Nikolas Lanzilotti, italiarra; eta Aita Frantzisko Peres, portugaldarra. Han aurkitzen zen ongi etorria egiteko Anjiro ere bere bi lagun japoniarrekin. Honek kristau fedean eskolatua izan ondoren baitaioa eskatu zuen, eta Goako gotzain jaunak kristau egin zuen. Paulo de Santa Fe kristau izen berria hartu zuen. Jai handiak egin ziren.

Hiru urte egin zituen Xabierrek Goatik kanpora, eta orain ere, Goan bederatzi egun eginik, Basainera zihoan Joan de Castro gobernadorearekin hitz egitera. Ez al zen Xabier oin-arina, hara hona gehiegi ibiltzen zena? Hori esan zioten berari, eta honek erantzun: "Misio lurralde berriak ezagutzeko biderik egokiena bertan egon eta bizitzea da. Entzutez bakarrik ezagutzen duenak huts egiteko arrisku handia du".

Laburra izan zen Basaingo egoera, eta Goara itzuli zenean, Aita Perez eta Anaia Oliveira Malakara joateko izendatu zituen hiri hartan eskola bat eraikitza.

Baina Goan Xabierrek gehien maite zuena San Paulo edo beste izenez Santa Fe kolejioa zen. Harrizko etxe eder honek bere ikasgela, jan eta lo-toki, kapera eta bizitzeko behar diren beste antolamentu guztiekin, bazuen 300 ikasleentzat tokia. Han ari ziren ikasten malabarrak, malakarrak, malasiarrak, baita Mozanbiken, Bengalan eta Sianen jaiotakoak ere.

Kolejio honen berri honela ematen dio Xabierrek gutun batean Erromara bere "Aita bihotzeko" Inaziori: "Goako hiri honetan Jainko gure Jaunak hemengo pertsona batzuei aditzera eman zien, zein gauza ederra zatekeen kolejio bat eraikitzea lurralde hauetan jaiotakoak Kristoren fedean eskolatuak izan daitezten, gero beren jaioterrietara itzulirik, han Kristoren fedea zabal dezaten".

Gobernadore Jaunak kolejio honen ardura Jesusen Lagundia-ri eman zion, eta Xabierrek, Europatik beste buru bat etorri arte, Aita Lanzilotti izendatu zuen erretore.

Xabier Peskerian zegoen bitartean etorri zen Europatik kolejioko erretore berria: Aita Antonio Gomes zen, hizlari bikaina, baina harroxkoa. Erretore honek, India Europa zelakoan, Goako kolejioa Pariseko unibertsitatearen erara moldatu nahi izan zuen, ordu, lege eta arau berdinak ezarriz.

Jokabide honen ondorenak laster ikus zitezkeen: kolejioko ikasle gazteek patioko hormak salto eginik basora ihes egin zuten. Xabierrek hondamen hau ikusirik, Peskeriatik itzuli zenean, Antonio Gomes erretoretzatik kendu, eta honen ordeztan Aita Gaspar Barzoo jarri zuen.

Misiolari berrien kopurua goraka zihoan: "San Pedro" galeoian lau etorri ziren. Bi mezadun: Aita Gaspar eta Aita Meltxor Gonsalves, eta beste bi meza eman gabeak: Fernandes eta Gago. Eta beste bost zetozen atzean gelditu zen "Gallega" itsasontzian.

Pozez beterik idazten dio Frantziskok Inaziori Erromara: "Orain kristauak dauden Indiako lurralde hauetan. Gure lagundi-koak leku hauetan daude: Malukon 4, Malakan 2, Peskerian 6, Kolonen 6, Basainen 2, Sokotoran 4 eta Goan askoz gehiago".

Peskeriako kristauak ziren Xabierrentzat bere misiotako lehen fruitu ahaztu ezinak, eta hara joan zen bere seme-alabei bisitaldi labur bat egitera. Hauek pozez zorutzen hartu zuten beren "Aita bihotzekoa", jerusalendarrek erramu egunean Jesus hartu zuten antzera, soinekoak bidean hedatuz.

Berri on eta txarrak entzun zituen Aitak bere seme-alaben ahotik: Aita Enrikezek hain ederki ikasi zuen paraben hizkuntza, interpretaririk gabe predika zezakeen... Etsaiek bi aldiz Anaia Morales bahitu eta esklabo bezala saldu zuten, baina beste bi aldiz diru truke erositako izan zen. Etsaiek elizak ere erre nahi izan zituzten baina kristauek beren fedea armen bidez defendatzen ikasi zuten...

Hiruzpalau aste besterik ez zituen egin Xabierrek paraben artean, eta gero Kotxindik zehar Goara itzuli zen.

Baina Xabier Japoniaz ametsetan zegoen. Jagiroren ahotik xehetasun guztiak jakin nahi zituen. Hango erregeak "Bo" zuen izena eta Meskon bizi zen. Hiri hartan bertan bontzoen unibertsitate ospetsu bat zegoen. Bontzo hauek beren idoloen apaizak ziren; as-

ko ziren, eta agintari eta herriaren aurrean izen handia zuten. Haien jainkoa "Dainitxi" zen, gauza guztien egilea, eta "Shaka" zen jainko horren berri ematen zuena.

Guk ez bezala, goitik beheraka idazten dute, baina liburu horiek ez ditu Paulok ulertzen, guretzat latin bezala direlako, eta horretan Paulo ez da eskolatua".

JAPONIARANTZ

Xabierrek Indiatik Inazio Loiolakoari idazten dio:

“Ni laster Japoniara noa, eta nirekin eramango ditut, Aita Kosme de Torres valentziarra, eta Anaia Joan Fernandez Kordobakoa, eta Pablo de Santa Fe (Anjiro) bere bi lagunekin, baita Manuel txinarra eta Amador indiarra gure laguntzaileak ere. Portugalدارren ontzi batean goaz Malakaraino.

Nolako barrengo pozez noan bidaia hau egitera ezin dut hemen idatzita gutun honetan jarri. Hainbeste heriotzako arriskuz beterik baitago bai itsaspeko harkaitz eta hondartzengatik, baita urgaineko lapurrengatik. Lau ontzitik bi Japoniara onik heltzen badira zorion handia izan dutela esan daiteke. Baina dena den, nire barrenean sentitzen dudanez, Japoniara joatea ez nuke utziko nire bizitzako arriskurik handienetan aurkituko banintz ere. Jainkoagan nire esperantza guztia jarririk noa, gure fede santua zabaltzeko hartu baitut lan hau”.

Joan behar zen egunean San Paulo kolejioan bildu zituen bere Lagundikoak, eta banan banan besarkaturik, negar artean, lagun guztiei hunkiturik azken agurra egin zien.

Eguraldi onak lagundurik, hilabete barru maiatzaren azken egunerako Malakan aurkitzen ziren. Agintari eta hiritarrek ongi etorririk beroena egin zieten Xabierri eta honen lagunei.

Pedro de Silva kapitaina, Vasco de Gama ospetsuaren semea, Xabierren lagun handia zen, eta honek aurkitu zion Japoniara eramango zuen ontzia. Portugalدار baten ontzi bat ezin alokaturik, Aban “Lapurra” izeneko “junko” ontzi bat hartu zuen Xabier Japoniara eraman zezan. Baita Pedro de Silvak esku zabalez 200 urrezko diru eskaini zizkion Xabierri Japoniako Enperadorearen aurrean esku hutsik azal ez zedin.

Baina Xabierrek berak emango digu ongien bidaia honetan gertatukoaren berri:

“Bagindoazen astiro-astiro geure bidean, eta, itsaso hauek ekaitzetan gogorrek baitira, ontziaren halako kulunkada batean Manuel gure laguntzailea ura ateratzeko bonbara erori zen eta neke handiz handik atera ahal izan genuen. Geroxeago kapitainaren alaba beste balantzada batean itsasora erori zen, eta hura salbatzeko gure ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren. Bere aitaren eta gure aurrean ito egin zen.

Handiak izan ziren gau eta egun ontzikoek negarrak. Idolo bat zegoen ontzian, eta harengana jo zuten jentilek galdezka, ea zergatik ito zen kapitainaren alaba. Eta jentilen modura zori eginenez, idoloaren erantzuna hau izan zen: kapitainaren alaba ez zela hilko Manuel ito balitz.

Itsasoak bareturik, bihotzak triste, gure bideari jarraitu genion Japoniararte”.

JAPONIA

1549 - Abuztua - 15

Japoniara heldu eta hiru hilabete barru Xabierrek Europara idazten du:

“1549ko abuztuaren 15ean, Andre Mari egunean, heldu ginen Jainkoari eskerrak, hain gogo biziz irrikatzen genuen Japoniako lurralde honetara.

Pablo de Santa Feren jaioterria den Kagoshimako portuan lehorreratu ginen. Eta hemen Pablaren etxekoek, bere ahaide eta beste askok maitasun handiz hartu gintuzten.

Orain arte nik hemen ikusi eta ikasitakoari begiratu, esan behar dizuet hauek direla guk aurkitutako jenderik prestuenak, eta jentilen artean ez dela izango besterik japoniarrei irabaziko dienik. Beren arteko harremanetan oso bizkorak dira, eta beren izen ona izugarri estimatzen dute, dirua baino askoz gehiago.

Lapurretan egitea oso gaiztotzat hartzen dute. Jatean neurriko dira, edatean ez hainbeste. Arrozaz egindako ardoa edaten dute, hemen ez baitago mahastirik.

Jainkoari buruz mintzatzea asko maite dute. Piztien antzeko idolorik ez dute. Gehienek antzinako gizon ospetsuetan sinesten dute. Gizon hauek filosofoen antzera bizi izan zirela uste dut. Hauen artean beste askok eguzkia adoratzeko dute, eta beste askok ilargia. Sen oneko gizonak dira, eta arrazoizko gauzak entzutea asko maite dute.

Ezkondurik, emazte bakar batekin ezkontzen dira. Irakurtzen eta idazten askok dakite.

Badira hemen gizon batzuk herritarrek “aita” esaten dietenak. Bontzoak dira. Hauek naturaren kontrako bekatuan erortzen dira, eta beraiek ere ez dute hori ukatzen. Eta guk aurka egiten diegunean haiek barre egiten digute, beren artean hori aspaldiko ohitura baita.



Egiaren bideari jarraitzen dionak, argia ikusiko du.
(Jn., 3, 21)

Ninjitsu izeneko bontzo bat ezagutu dut, laurogei urtekoa edo, bere bizi-tza zintzo eta jakituriagatik itzal handikoa. Nire lagun handia egin da. Honekin hizketaldi luzeak izaten ditut, ea gure arima betikoa den ala gorputzarekin batera hiltzen den aztertzeke. Honek batzuetan betiko dela esaten dit, besteetan ezetz. Zalantzan dago.

Hemengo jendea harriturik dago, gu nola hain urrutitik etorri garen ikusirik, Jainkoaren gauzak irakasteko eta Jesukristogan sinetsiz beren arimak salbatzeko.

Pablo de Santa Fe (Anjiro) bere herritarrentzat misiolari sutsu agertu zen. Pabloren amak, emazteak eta seme-alabek, beste ehun lagunekin, bataioa hartu zuten. Kagoshimako iparraldean jauregi bat zegoen, Itxiku zuen izena, eta bertako etxekoandrea bere seme eta beste hamabost lagunekin, kristau egin ziren. Indian Xabierrek arrainak sarekada hartzen bazituen ere, Japonian amuz banan-banan hartu beharra zegoen.

Irailak 29, San Migel egunean, -aingeru hau hartu zuen Xabierrek Japoniako zaindaritzat- lurralde hartako Agintari Nagusia, Shimatsu Jauna ikustera joan zen Xabier. Kagoshimaren hego aldeko gaztelu gotor batean bizi zen. Agintari honek Europatik etorritako misiolaria pozik hartu zuen, eta bere aginpideko lurraldean Jainkoaren berri ona zabaltzeko baimena eman zion.

Harrez geroztik Xabier plaza eta bidegurutzetan, eta jendea biltzen zen edozein tokitan, entzun nahi zuenari zeruko bidea hasi zen irakasten. Batzuek atzeritarraren japoniako hizkuntza mordoiloa entzunik barre egiten zioten. Beste batzuk ordea beren artean pentsatzen jartzen ziren: bere erlijioa irakasteko hain urrutitik etorri denean, balio handiko zerbaite eman nahi digu honek. Eta Xabierrek esandakoa ontzat hartzen zuten... Baina bataiorik ez zuten eskatzen...

Baina bontzoak beren "debotoen" emaitz eta opariak pixkanaka gutxitzen hasi zirela ohartu ziren, eta Shimatsu Agintariarengana erlijio berria zabaltzeko baimena eman zuelako kezaz joan ziren. Hori dela eta, lurralde haren gainera kalte handiak etorriko zirela, mehatxu egin zioten.

Shimatsuk orduan bontzoei atsegina ematearren, inor gehiago kristau egitea heriotz zigorpean debekatu zuen. Xabierrek Jesusen berri ona zabaltzeko ate guztiak itxita ikusiz, beste lurralde batera joateko asmoa hartu zuen.



Juuek gauza zoragarriak bilatzen dituzte, grekoek zientzia hutsala, baina, guk, gurutzean hildako Kristori jarraitzen diogu.

(1, Cor., 22-23)

HIRADO

Baina Japoniako Xabierren lanak, ibilerak eta nekeak nork hobe guri kontatuko berak baino?

“Kagoshiman urte bete luze egon ondoren, lurralde honetako Agintariak Jainkoaren legea irakastea debekatu zuenez gero, Hirado izeneko beste lurralde batera joan ginen. Lurralde honetako Jaunak oso pozik hartu gintuen, eta egun gutxi barru ehun pertsona inguru kristau egin ziren. Ordurako Anaia Fernandez Japoniako hizkuntzaz ongi baliatzen zen, eta honek japonieraz idatzitako liburutik irakurriz, kristau asko egin ziren.

IAMAGUTXI

Aita Kosme de Torres utzi genuen Hiradon kristau berriak zaintzen, eta gu, Fernandez eta biok, Japoniako Jaun handi baten lurraldera joan ginen. Iamagutxi du izena. Hiri handia da. Hogei milatik gora etxe izango ditu. Hango kaleetan egunean bi aldiz, gure liburutik irakurrita, Jainkoaren legea predikatzen hasi ginen. Eta jende asko etortzen zen guri entzutera, eta beren etxeetara ere dei egiten ziguten, gure dotrina nolakoa zen entzuteko. Eta gure dotrina beren erlijioa baino hobea zela ikusten bazuten, pozik hartuko zutela esaten ziguten.

Jainkoaren legea entzuteak poz handia ematen dio askori, beste batzuek, ordea, burla egiten ziguten. Beste zenbaitek, hala behar, ez zekiten zer pentsatu.

Jainkoaren legea egun asko agertu ondoren, Iamagutxiko Jaunak bera ikustera joateko deitu gintuen. Joan ginen eta galdera asko egin zigun: ea nongoak garen, Japoniara zergatik etorri ginen... Jainkoaren legea predikatzera etorri ginela, guk erantzun genion. Jainkoa ezagutu gabe ezin baita inor salbatu.

Orduan berak lege hori nolakoa zen galdetu zigun, eta guk ordu betean edo gure liburutik irakurri genion, eta berak arreta handiz entzun zigun. Eta gero joateko baimena eman zigun. Baina kristau gutxi egiten ziren.

Baina Txina aldetik zetozen albisteak ez ziren bat ere pozgarriak. Manuel de Chaves portugaldarrak, Kantoneko espetxetik ihes egitea lortu zuenak, hango kartzelan sofritutako oinaze eta tortura ikaragarriak kontatzen zituen: hango horma lodi eta ilunpeak, hango kiratsa eta usain nazkagarriak; nola motiborik txikienekin, eta askotan baita motiborik gabe ere, torturatzen zituzten, eta nola oinak zepoetan sarturik gau osoak zirkinik egin gabe pasatu behar zituzten.

Xabier txinatarrekin hizketan hauen konfiantza irabazten hasi zen. Baina inor ere ez zen ausartzen europar bati Txinara sartzeko laguntza ematen. Ekin eta ekin azken batean Kantongo gi-

zon bat aurkitu zuen hiru kintale piperbeltzen truke bere burua arriskatuko zuena.

Honela egin zuten tratua:

Gizon honek halako gau batean Xabier eta honen lagunak ilunperik ezkutuenean bere ontzian hartu eta Kantoneraino eramango zituen. Han hiru-lau egunez bere etxean ezkutaturik gordeta eduki ondoren, halako egun batean eguna argitu aurretik Kantongo hiriko atean utziko zituen.

Xabier bere lagunekin zuzenean hiriko Agintariaren jauregira joango zen, eta han Txinako Enperadorearentzat Goako gotzainaren gutuna erakutsiko zuen. Eta handik Txinako Enperadoreagana joango zen Agintari Nagusiari Jainkoaren dotrina predikatzeko baime-
na eskatzera.

Egitasmo honen arriskuak Xabierrek ongi ikusten zituen, eta gutun batean berak adierazten duenez lehen arriskua da: "Eramango gaituen gizon honek dirua hartu eta gero ez ote gaituen gu uharte bakarti batean utziko, edo itsasora botako.

Eta bigarren arriskua da: "Kantoneraino heldu eta hango gobernadoreari aurkeztu eta ere, ez ote gaituen honek kartzelan sarturik oinazeak emango".

Baina beldur hauen guztien gainetik beste beldur handiago bat zuen Xabierrek: "Jainkoagan konfiantza eta esperantza galtzea".

KIOTO

"Iamagutxin bildutako fruitua hain urria zela ikusirik, Japoniako hiririk nagusienera joatea erabaki genuen. Kioto edo Meako du izena. Bi hilabete egin genituen bidean. Arrisku handiak igaro genituen, bai gerragatik, baita hotz handi eta lapurrengatik ere.

Kiotora heldu, eta egun gutxi barru bertako Erregearekin hitz egin nahi izan genuen, Jainkoaren legea predikatzeko baime-
na eskatzeko. Baina ezin izan genuen hori lortu. Geroago jakin genuen errege hori ez zela obeditua, eta horregatik gerrak zirela. Kioto hiria, hemen hala diote, lehen oso handia izan zela, baina orain gerrak direla eta guztiz hondaturik dago. Hala guztiz ere, gaur ere ehun mila etxe zutik daudela nik esango nuke".

IAMAGUTXIN BERRIRO

“Eta lurralde hartan Jainkoaren legea onartzeko bakerik ez zela ikusirik, Iamagutxira itzuli ginen, eta Iamagutxiko Jaunari gure gobernadore eta gotzainaren gutunak eman genizkion, baita opari baliotsuak ere. Iamagutxiko Jaunak ordez zilar eta urre asko eskaini zizkigun, baina guk ez genuela holakorik nahi esan genion, Jainkoaren legea kaleetan predikatzeko baimena baizik. Eta berak hori maitasunez eman zigun. Etxe handia ere eman zigun bertan bizitzeko.

Eta etxe horretan geundela jende asko zetorren guri entzute-ra, eta guk egunero bi aldiz hitz egiten genien, eta gure etxea beti beterik aurkitzen zen. Gure erlijioari buruz galdera asko egiten zigten, eta gure erantzunak harturik, beren erlijioa ez zela egiazkoa ohartzen ziren, eta bai gurea.

Galdera-erantzun hauetan egun asko eman genituen, eta egun asko igarota kristau egiten hasi ziren, eta lehen gure etsai gogorrenak zirenak, orain bataioa eskatzen lehenak ziren. 500 pertsona bataiatu ziren. Bontzoak orain gure etsaiak dira, beren gezurrak denen agirian jartzen ditugulako”.

BUNGO

Xabierren ospe eta entzutea laster zabaldu zen Japoniako lurralden, eta Bungoko Jaunak gutun bat bidali zion Europatik etorritako misiolariari bere gortera gonbidatuz.

Duarte de Gama portugaldarra Xabierren lagun handia, Bungoko portuan bere itsasontziarekin Xabierren zain zegoen. Gizon honek Japoniako ohiturak ongi ezagutzen zituen: harroak ziren eta kanpoko itxurei garrantzi handia ematen zieten. Horregatik Jainkoaren dotrina jopardarrei begietatik sartzeko Xabierrek inoiz egingo ez zuena egin zuen.

Duarte de Gamak bere itsasontzia kolore distiratsuzko ikurrinez apaindu zuen; ontziko kanoiak orroaka hasi ziren, eta marinelak beren soineko ederrenekin jantzi ziren. Xabier bera ere sedazko sotana berri eta estola urreztatuz agertu zen. Paje batek Andre Mariaren irudi bat zeraman eskuetan. Hala joan ziren ospe eta aintza handiz portutik Bungoko Jaunaren jauregiraino.

Honek pozez zorutzen hartu zituen europarrak, eta bere lurraldean Jainkoaren legea predikatzeko baimena gogo onez eman zien. Geroago bera ere kristau egin zen.

Baina Duarte de Gamak Indiatik ekarritako albisteak ez ziren denak onak, eta okerrak zuzentzera Duarteren ontzian India-ra itzultzea erabaki zuen. Ia hiru urte egin zituen Xabierrek Japoniako lurraldean neke eta poz, atsekabe eta atseginen artean, Jainkoaren hitza zabaltzen.

Xabierren izena gaur ere Japonian hango kristauen, baita kristau ez direnen artean, gora handikoa da.



Berak eramango du nire izena nazio eta erregeengana.
(Act, 9, 15)

INDIAN BERRIRO

Goan Xabierrek albiste onak eta txarrak hartu zituen, onak gehiago txarrak baino.

Ternateko kolejioa Aita de Castro zuzendari zelarik bikain zihoan. Portugaldarren semeak eta baita O Moro irletako kazikeen semeak ikastola hartan edukatzen ziren.

Anboinan kristau berriak ugaltzen eta gehiagotzen zihoazen.

Peskerian milaka ziren bataioa hartu zutenak, baina orain arte lortutakoa sendotu egin behar zen, elizak eta eskolak eraikiz, eta horretan ari ziren.

Kabo Komoringo kristauak 40.000tik gora ziren.

Santo Tomen Aita Meltxor Gonsalbezen lanak Jainkoak be-deinkatzen zituen. Tana herrian hilabeteetan 400 pagano bataiatu zituen

Ormuzen Aita Gaspar arrakasta handiz Kristoren legea zabaltzen ari zen. Misiolari honen ospe eta entzutea Arabia eta Per-siaraino zabaldu ziren.

Kotxingo kolejio berrian 150 mutil gazte kristauen legean edukatzen ziren. Hauek izango ziren geroago beren jaioterrietara itzulitakoan kristau familiak eratuko zituztenak.

Goan Xabierrek Aita Gomes Santa Fe kolejioko nagusitzatik kendu egin zuen, honen ordez Aita Nunes jarririk. Honela han-go istiluak baketu egin ziren, eta ikasketak normaltasun osoan jarraitu zuten.

Hauek ziren Xabier misiolariaren hamar urteko fruituak, ne-ke, poz eta izerdi askoren artean bildutakoak.

TXINARA BEGIRA

Baina Xabierren bihotza Txinan zegoen. Berak aitortzen digu:

“Bungotik, Iamagutxira joan gabe, Indiarra joatea erabaki nuen portugaldarren ontzi batean, eta urtarrilaren hogeita lauan Kotxinen aurkitu nintzen. Japonian Aita Kosme de Torre eta Anaia Joan Fernandez geratu dira hango kristau berriak zaintzeko.

Baina ni Txinara joateko gogo biziaz nago. Lurrealde hori oso zabala omen da. Han hiri handiak omen daude jende ugariz beteak. Etxeak harrizkoak dira, eta seta finak egiten dituzte.

Nire burua zuritzen hasia da, baina osasunez oso indartsu aurkitzen naiz. Beste eragozpenik sortzen ez bada 1552ko urte honetan Txinara joatea erabaki dut.

Jainkoaren maitasunagatik, arren, eskatzen dizuet zuen otoitzetan nire alde egiteko, Jaunaren nahia ezagutu eta zintzo bete dezadan.

Zuen anaia txikiena, baina erbestean handiena. Frantzisko”.

OINETAKO HAUTSA ASTINDU

Ez zekien zergatik, baina kezkaz beterik zeukan Xabierrek bihotza. Malakara iritsi zenean izurriteak jota zegoen hiri guztia. Erietxeak gaixoz gainezka zeudenez, portuko ontziak ere ospitalizat hartu zituzten. Alvaro de Ateide, Vasko de Gama ospetsuaren semea ere izurriaz kutsatua zegoen. Gizon hau Malakako itsasoan Kapitain Nagusia zen.

Xabier ikustera joan zitzaion, baina Alvaro Jaunak ez ziola begi onez begiratzen laster ohartu zen. Zergatik? Xabier Txinara joateko enbaxada handi eta baliotsu bat prestatzen ari zen, eta Diego Pereira izango zen –Indiako Erregeordeak izendatuta– enbaxada horren buru.

Diego Pereira Xabierren lagun mamia “Santa Cruz” galeoiaren jabea zen, eta honekin Portugaleko enbaxadore karguarekin, Txinara joateko prest zegoen. Horretarako bere ontzia opari ederrez bete zuen: Europako oihal finak, suzko eskopetak, orduak berez jotzen zituzten erlojuak, espezie baliotsuak eta abar.

Alvaro Jaunak bekaitzez eta inbidiaz erreta, “Santa Cruz” galeoiaren lema (timoia) kentzeko agindu zuen, portutik ihes egin ez zezan.

Xabier eta honen lagunak arrenka Alvaro Jaunarengana joan ziren Jainkoaren legea zabaltzeko, Portugalen osperako, eta Erregearen nahia betetzeko presto zegoen enbaxada ez debekatzeko.

Alvaro Jaunak erregearen izena entzun zuenean, lurrera txu eginez, esan zuen: Bost axola niri erregeak zer nahi duen. Eta ez zuen atzera egin Aita Santuaren eskomikuaren aurrean ere.

Bien bitartean Alvaro Jaunak Malakako hirian Xabierren aurka izugarrizko kalumniak zabaldu zituen: harroa zela, mozkorra, baita lapurra ere. Xabier atsekabez beterik, hirian bere aurka sortu zen giro ustela ezin jasanik, “Santa Cruz” galeoira joan zen bizitzera.

Azken batean, eztabaida askoren ondoren hau erabaki zuten: “Santa Cruz” galeoia joango zela, baina Diego Pereira gabe, eta

Txinako erregearentzat oparirik gabe, eta gainera ontziko marinela erdiak Alvaro Jaunak izendatuak izango zirela.

Malakako hiriari agur egitean porturako bidean, Xabier Alvaroren etxe aurrean belauniko jarri eta negarrez hasi zen, eta bere etsaiaren alde otoitz egin zuen, eta isiltasun osoan bere oinetakoen hautsa astindu zuen.

SANTXON

1552ko irailaren hasieratik abenduko 3.era arte.

“Santa Cruz” ontzian Xabier, Antonio txinarra, Kristobal malabar mutila eta Alvaro Ferreira jesulaguna sartu ziren. Ontzi hartan bertan beste hirurogei lagun zihoazen, erdiak kristauak eta mahometarrak beste erdiak.

Haizea lagun, lau egunen buruan Singapurko portuan aurkitu ziren. Hiri honetatik Gaspar Barzeori idatzi zion:

“Ni Kanton aldera noa, inoren eta ezeren laguntzarik gabe, mairu edo jentilen batek Txinara eramango nauen esperantzan, Txinara eraman behar ninduen ontzia Alvaro Jaunak debekatu egin baitu”.

Singapurtik Kantonera itsasbidea biziki neketsua izan zen. Ura falta zitzaien, eta Ferreira eta Antonio larriki gaixotu ziren. Aski lan zuen Xabierrek ontziko behar guztiei erantzuteko.

Baina hara! azkenez Santxon begien aurrean.

Santxon edo Santzian Txinako lurraldetik 10 kilometrora zegoen irla edo uharte txiki bat zen. Menditxo baten babespean hondartzan buztin eta abarrez egindako txabolak ikusten ziren. Txinara sartzea atzerritarrentzat heriotz zigorpean debekaturik zegoenez gero, han egiten zituzten beren tratuak portugaldar eta Txinako merkatariak: Txinako seda finak, kakao eta portzelanak alde batetik, eta suarmak, piper beltza eta Europako bitxikeriak bestetik.

Han aurkitu zuen Xabierrek Jorge Alvarez lagun zaharra, Malakan Anjiro japoniarra aurkeztu ziona. Ongi etorri beroena egin ondoren portugaldar jator honek Xabier eta honen lagunak bere txabolan pozik hartu zituen.

Xabierrek bere lagunari mendi hegalean kaperatxo bat erakitzeke eskatu zion, han meza eman ahal izateko. Hiru egun ba-



Zoriontsuak Jainkoarengan hiltzen direnak.
(Apoc., 14, 13)

rru lana bukatuta zegoen. Han biltzen zituen portugaldar merkataria, beren emazte, ume eta morroiekin egunero kristau fedeko egiak irakasteko. Han ematen zuen egunero meza Txinara begira, lurralde zabal hartan Kristoren argiak noiz argi egingo zuen zain.

Honetan Xabier sukar biziz gaixotu zen, eta libragarriak hartuz nolabait sendatu zenean, berriz ere honen gogo Txinan zegoen. Lurralde hartan nola sartuko beste bide baten bila zebilen.

“Gizon hori ez badator Diego Vaz de Aragonen junkoontzian Siamera joango naiz, eta handik urtero Txinara joaten den enbaxadarekin batera ni ere joango naiz”.

Urriak 25, Gaspar Mendesen ontzia Santxondik Malakera joateko itsasoratu zen. Han zihoazen Xabierren azken gutunak. Eskutitz hauetan bere lagunei zerura arte azken-agurra egiten die.

Diego Pereira bere lagun handiari idazten dio: “Jainko gure Jaunak, bere errukian, mundu honetan ez badugu gehiago elkar ikusten, paradisuko glorian bat egin gaitzala. Han amaigabeko egunetan elkar ikusiko dugu”.

Eta Gaspar Berzeori itzaropenez idazten dio: “Hemen dauden txinarrak esaten dutenez, Txinako Erregeak pozik hartuko omen luke beste erlijio lege berri bat bere lurraldean. Han zer gertatuko den luze idatziko dizut”.

Honelako Xabierren asmaketak ez ziren amets hutsak: Che Tsoog Txinako enperadorea, Budaren tenpluak bota, eta beste erlijio berri baten bila zebilen.

Egun gutxi barru gizon hura agertu zen. Albiste beltzak zekartzan.

Egun haietan txinatarrek portugaldarren beste ontzi bat atxilotu zuten, eta hango marinela Kantongo espetxean useltzen zeuden. Atxilotuen artean Pereira de Miranda aurkitzen zen, Japoniako Hiradon Xabierri hainbeste lagundu ziona. Motibo berri bat Xabierrentzat bere laguna askatzera Kantonera joateko.

Gizon honek Kantongo ziegako ilunpeak, zepoak eta torturak hain biziki azaltzen zituen, non Alvaro Pereirak, Xabierren lagunak, adorea galdu, eta atzera egin zuen.

Txinako arriskua jasatzeko Xabierrekin Antonio txinarra eta Kristobal bakarrik geratu ziren.

Txinara sartzeko dena prestatu ondoren, Xabier portugaldarren buruzagiari azken agurra egitera joan zen. Baina honek Xabierri, mesedez, merkatarien ontziak handik alden du arte, egun batzuk bidaiara atzeratzeko eskatu zion. Xabier Kantonen ikusteak hango gobernadorea haserretu, eta ontziei erasoko ziela beldur zen.

Atzerapen hau zela eta, Txinako gizon hura hilaren 19rako etorriko zela hitz emanez, bere kontrabando lanera joan zen.

Azaroaren 13an txabolak erre eta merkatariak itsasoz handik alde egin zuten. Santxon badian Diego Vaz de Aragonen junko-ontzia eta Santa Cruz galeoia bakarrik geratu ziren.

Jorge Alvaresek Xabierri azken agurra egiteko ez zuen bihotzik izan, eta isilpean Xabier konturatu gabe, alde egin zuen. Xabierrek pena handia hartu zuen.

Azaroak 19. Txinako gizona etorriko zela, baina ez zen etorri.

Azaroak 20. Xabier talaian txinako gizonaren zain urrutira begira dago, baina ez zen ageri.

Azaroak 21. Astelehena. Xabierrek meza ematean, larrialdia jotz, zentzua galtzen du.

Antoniorekin hitz egin ondoren, Xabier Santa Cruz ontzira eramatea izango zela hoberena erabaki zuten. Han hobeto zaindua izango zen.

Baina ez zen uste bezala gertatu. Galeoiaren kulunkaz sukarrak goraka egin zion, eta bi egun barru berriz ere hondartzako txabolara ekarri behar izan zuten.

Hotz handia egiten zuen, eta Xabierrek galtza lodi batzuk zekartzan besapean berogarrirako, eta almendra gutxi batzuk mantetan jateko. Sukar bizian zetorren. Garai hartako medikuntzak eskatzen zuenez, odola atera zioten, baina erremedio honek ez zion onik egin. Zentzua galdu zuen. Harrezkero ez zuen gehiago janaririk hartu.

Azaroak 24. Osteguna. Berriz ere odola atera, eta berriz ere zentzua galdu zuen. Libragarri bat eman zioten, baina sukarrak ez zion alde egiten, Xabier ez zen kexatzen. Ez zuen ezer eskatzen.

Bereak egin zuela oharturik Santa Cruz galeoitik bere gauzak liburuak eta paperak ekartzeko eskatu zuen.

Gero sukarraren beroak eraginik burua galdu zuen, eta Antonio txinarrak ezagutzen ez zuen hizkuntza berezi batean jarduten zuen. Antoniok ezagutzen ez zuen hizkuntza berezi hori, zein izan zitekeen?

Mutil honek portugés, latin eta Txina aldeko hizkuntzak asko edo gutxi ezagutzen zituen... Askoren iritziz: "Sukarraren beroak txikitzen bere amaren altzoan ikasitako euskarazko otoitzak ekartzen zizkion ahora".

Baita noizean behin esaten zuen latinez: "Tu autem meorum peccatum et delictorum miserere". Hau da: "Nire pekatu eta gaizakeriaz, erruki, Jauna". Baita ere esaten zuen: "Jesu, fili David, miserere mei. Mater Dei, miserere mei". "Jesus, Dabiden seme, erruki nitaz. Jainkoaren ama, erruki nitaz".

Azaroak 25. Dena berdin. Hizketaldi berdinak eta ezer jan gabe.

Azaroak 26, 27, 28... Hitz egitea galdu zuen, eta hala iraun zuen hiru-lau egunetan.

Abenduak 1. Osteguna. Hitz egitea etorri zitzaion, eta ingutukoak ere ezagutu zituen. Lehen esandako otoitzei ekiten zien.

Abenduak 2. Ostirala. Xabier eta Antonio bakarrik txabolan. Xabierren laguntzaile leial honek azkena laster zetorrela ikusirik, gau osoa gaixoaren aldamenean igarotzea erabaki zuen.

Gurutze bat eman zion eskura. Gurutzean begiak josi eta Jesusen izena sarritan esanez, makaltzen eta ahultzen hasi zen.

Abenduak 3. Larunbata. Eguna argitzen hasi zuenean –dio Antonio txinarrak– hiltzorian daudenen kandela piztu, eta eskura eman nion, eta honela Jesus hitza ezpainetan zuela, bare-bare, bake bakean, bere arima Jaunaren eskuetan utzi zuen.

Bere azken hitzak hauek izan ziren: "In te, Domine, speravi, non confundar in aeternum", "Zugan, Jauna, jartzen dut ene itxaropena, ez nadila betiko galdu".

1552 urteko abenduaren 3. eguna zen, eta Xabierko Franziskok 46 urte beteak zituen.

Eta egun hartan bertan Xabierko gazteluan Kristo gurutzekoak, bere kaperatxoan odol-izerdia eman omen zuen.



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO
Bilboarietako Liburu-eguzki Zentrua
Biblioteca Central de Euzkadi